

HONDAKINEN PREBENTZIORAKO EUROPAKO ASTEA

EUSKADIN

GARATUTAKO EKINTZA NABARMENAK



© Ihobe S.A., 2023ko azaroa

Argitaratzailea:

Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Alameda Urquijo, no36 - 6o (Plaza Bizkaia)
48011 Bilbao - Tel. 94 423 07 43

HONDAKINEN PREBENTZIORAKO EUROPAKO ASTEA



GARATUTAKO EKINTZA NABARMENAK



ÍNDICE

1.- Sarrera.....	4
2.- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen deskribapena.....	6
3.- Ihebek Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen duen eginkizuna.....	9
4.- Argitalpenaren helburua eta irismena.....	11
5.- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen barruko Euskadiko parte-hartzearen adierazleak.....	12
6.- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen barruan Euskadin garatutako ekintza nabarmenak.....	15
7.- Ondorioak.....	71

1.- Sarrera

Hondakinik onena sortzen ez dena da, edo, halakorik ezean, sortu ondoren produkzio-zikloan jatorrizko materialaren propietate berberekin berriro sartzeko moduko tratamendua jaso dezakeena, jatorrizko lehengaia degradatu gabe.

Horregatik, prebentzioa eta berrerabilpena dira hondakinak sortzea saihesteko funtsezko zutabeak; berre-rabiltzeko prestaketa, birziklapena, gainerako balorizazioak eta deuseztapena, berriz, lehentasun-ordena horretan, jada sortutako hondakin batek baliabide izaten jarraitu ahal izateko bultzatu beharreko aukerak dira.

Hondakinak sortu eta kudeatzeko dinamikan, fabrikatzaileak ez dira rol garrantzitsua duten eragile bakarrak. Administrazioak ere kudeaketa-azpiegitura egokiak eta esparru legegile egonkor eta eraginkor bat egoteaz arduratu behar du. Era berean, kontsumitzaileek rol giltzarria daukate prebentzioan (kontsumitzen dituzten produktuak hauta baititzakete), berrerabilpenean eta, batez ere, produktuaren behar bezalako antolaketa eta bereizketan, produktu horren bizi-amaierari dagokionez. Azkenik, hondakinaren tratamenduaz eta kudeaketaz arduratzen diren eragileek fase horren inpaktuak murrizteko prozesu optimoak eskaini beharko dituzte. Tartean diren eragile guztien elkarlan koordinatuak bakarrik ahalbidetuko du ekonomia zirkularrerantz modu esanguratsuan aurrera egitea.

Gehiago lortzea, gutxiagorekin

Euskadin lehengai gutxi daude. Horregatik, funtsezkoa da bai kapital naturala zaindu eta hobetzea, izakin finituak kontrolatuz eta baliabide berriztagarrien fluxuak orekatuz, bai baliabideen erabilera optimizatzea, produktuak, osagaiak eta materialak une oro ahalik eta gehien txandakatuz (ziklo teknikoetan nahiz biolo-gikoetan), bai sistemaren eraginkortasuna sustatzea, kanpokotasun negatiboak azaleratu eta ezabatuz.





Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana

Eusko Jaurlaritzak 2021eko azaroan onartu zuen Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Plana, Euskadik arlo horretan datorren hamarkadan jarraitu beharreko estrategia ezarriko duena.

Planaren helburu estrategikoen eraikuntza bi elementutan oinarritu da:

- Europako Batzordeak finkatutako eta Euskal Autonomia Erkidegoko hondakinaren egoeraren bera-riazko testuingurura egokitutako erronka orokorrei erantzutea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Zirkularrerako Estrategiaren helburuekin eta EAEko gaine-rako plangintzekin lerrokatzea.

Planteatutako helburuak SMART motakoak dira: espezifikoak (S); neurgarriak (M); lorgarriak (A), nabarmenak (R) eta denbora-esparru batekin (T). Epe ertainerako (2025. urtea) eta epe luzerako (2030. urtea) helburuak ezarri dira:

	2025. urtea	2030. urtea
 <p>Prebentzioa</p>	<p>BPGd-unitate bakoitzak sortzen duen hondakin-tasa % 20 murriztea, 2016. urtearekin alderatuta, eta % 13 sorkuntza absolutuan 2010. urtearekin alderatuta.</p>	<p>BPGd-unitate bakoitzak sortzen duen hondakin-tasa % 30 murriztea, 2016. urtearekin alderatuta, eta % 15 sorkuntza absolutuan 2010. urtearekin alderatuta.</p>
 <p>Gaikako bilketa eta bereizketa</p>	<p>Jatorrian bereizitako hondakinen % 75era heltzea.</p>	<p>Jatorrian bereizitako hondakinen % 85era heltzea.</p>
 <p>Balorizazioa</p>	<p>Bigarren mailako hondakin bihurtutako hondakinen % 75era heltzea, aldi berean, horien energia-balorizazioa % 15etik behera mugatuz.</p>	<p>Bigarren mailako hondakin bihurtutako hondakinen % 85era heltzea, aldi berean, horien energia-balorizazioa % 15etik behera mugatuz.</p>
 <p>Deuseztapena murriztea</p>	<p>Hondakinak deuseztatzeko operazioen bidezko kudeaketa sortutako hondakinen % 30era baino gutxiagora mugatzea.</p>	<p>Hondakinak deuseztatzeko operazioen bidezko kudeaketa sortutako hondakinen % 15era baino gutxiagora murriztea.</p>

2.- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen deskribapena

Europako hondakinen arloko politikaren eta 2030HPKPren konpromisoen esparruan, Euskadiko Hondakinak Kudeatzeko Organoa osatzen duten Eusko Jaurlaritzak, Ihoberen bitartez, eta 3 lurralde historikoetako hiru foru-aldundiek parte hartzen dute Hondakinen Prebentziorako Europako Astea.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea baliabide iraunkorren eta hondakinen kudeaketaren inguruan sentsibilizatzeko ekintzak astebetetz ezagutarazteko, sustatzeko eta ezartzeko ekimena da

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea Europan hondakinen prebentzioaren inguruan kontzientzia sortzeko kanpainarik handiena da. Tokiko eta eskualdeko agintaritzak publikoek sustatua, hainbat jarduera gauzatu dituzten era guztietako eragileak biltzen ditu (herritarrak, ikastetxeak, enpresak, GKEak, elkarteak), hondakinak murriztu behar diren inguruko kontzientzia sortzeko. Hondakinen Prebentziorako Europako Astea, hortaz, soilik astebetetz egiten da azaroan (normalean hilaren azken-aurreko edo azkeneko astean). Kanpaina horretan, bereziki, beren komunitateetan kontsumo jasangarria eta ekonomia zirkularra ezagutzera ematen duten milaka eta milaka boluntariok egindako ahaleginak eta kartsutasuna nabarmentzen dira.


Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen helburuak

- Hondakinak murrizteari, produktuak berrerabiltzeari eta materialak birziklatzeko estrategiei buruzko **kontzientzia sortzea**, baita Europar Batasunaren eta estatu kideen politika lotuei buruzkoa ere.
- Hondakinen Prebentziorako Europako Astea parte hartzen dutenek **egindako lana nabarmentzea**.
- **Europako herritarrak** funtsezko lau ekintza-gaitan parte hartzera **mobilizatzea eta animatzea** (Murrizketa, prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea; Berrerabiltzea, berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea; Birziklatzea, hondakinak bereiztea eta birziklatzea; "Let's Clean Up Europe!", espazio publikoak garbitzeko Europako jardunaldia). Horrez gain, Hondakinen Prebentziorako Europako Asteak sustatzen duen urteko gaia (urtero, Hondakinen Prebentziorako Europako Asteak hondakinen prebentzioaren alderdi bat hartzen du ardatz, gizarte gisa ditugun kontsumo-ohitura jasanezinekin zerikusia duten inpaktu handiko arloak azpimarratzeko asmoz).
- Hondakinen Prebentziorako Europako Astea **alderdi interesdunen gaitasunak indartzea**, eta horretarako komunikazio- eta prestakuntza-tresna espezifikoak ematea.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen mezua

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen esparruan gauzatutako ekintzek urrezko 7 arauetako 3 nagusiak dituzte aztergai: Hondakinak murriztea; Produktuak berrerabiltzea; eta Materialak birziklatzea. Eta hurrenkera horretan gainera.

Horiexek dira kontsumo-ohiturak ebaluatzean kontuan hartu beharreko urrezko arau nagusiak.



Hondakinik onena Sortzen ez dena da!

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea hondakinen prebentzioaren garrantziaren inguruan kontzientziatu nahi duen proiektua da.

Hondakinen prebentzioa da sortutako hondakin-bolumena murrizteko eta horien kaltegarritasuna gutxitzeko egin daitekeen eta egin behar den guztia.


Hondakinen prebentzioa substantzia bat, material bat edo produktu bat hondakin bihurtzea saihesteko hartutako neurrien multzo gisa defini daiteke.

Neurri horiek honako hauek murriztea dute helburu:

- Sortutako hondakin kopurua, kontsumo hobearen bidez eta produktuak berrerabiliz eta horien bizitza luzatuz.

- Material eta produktuetako substantzia kaltegarrien kopurua.
- Horrenbestez, hondakinen sorrerak eta geroztiko tratamenduak ingurumenaren eta giza osasunaren gainean sortzen dituen ondorio kaltegarriak.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen historia



Hondakinen Prebentziorako Europako Astea Life+ proiektu gisa sortu zen, eta erreferente kontinentala izatera iritsi da Europa osoan garatzen diren ekintzak hedatzeko eta balioesteko, hondakinen kudeaketaren piramidearen funtsezko pieza horretan, prebentzioan, alegia.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea 2009an sortu zen Europar Batasunak finantzaturako Life+ proiektu gisa. Hondakinen prebentzioan indarrak batzeko asmoa zuten Europa osoko zenbait agintaritza publikoren eskutik sortu zen ekimena. Arrakastaz betetako lau urteren ondoren, proiektua Life+ proiektu beraren pean finantzatu zen 2017 arte. 2017tik aurrera, Europako Zuzendaritza Batzorde batek finantzatu eta koordinatu du proiektua.

3.- Ihebek Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen duen eginkizuna

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Kudeatzeko Organoa Eusko Legebiltzarrak eskatuta Sortu zen, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta hiru foru-aldundietako ingurumen-arloko eskumena duten departamentuek osatzen dute.

Ihebek, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, organoaren idazkaritza teknikoa kudeatzen du

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Kudeatzeko Organoaren misioa

Organoaren misioa da Euskal Autonomia Erkidegoan Hiri Hondakinak Planifikatzeko eta Kudeatzeko lldoek proposatutako programak eta ekintzak koordinatzea eta, era berean, horiek betetzen direla bermatzea eta ikerketa-arlo posibleak identifikatzea. Hori guztia, betiere, hondakinen kudeaketari buruzko Europako legeriak ezarritako manu edo agindu hierarkikoekin bat etorritz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Kudeatzeko Organoaren ezaugarriak

Euskal Autonomia Erkidegoko Hondakinak Kudeatzeko Organoa hondakinei buruzko politikak diseinatzeko eta hedatzeko ezinbesteko tresna bihurtu da.

Askotariko funtzioen artean, Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen jarduerak Euskadin koordinatzeaz arduratzen den erakundea da organo hori. Ihoberi, organoaren idazkaritza teknikoa den aldetik, honako ardura hauek dagozkie:

- Erakunde publiko zein pribatuen eta herritarren beren **ekintzak erakartzeko** lanak dinamizatzea.
- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen **mezuak ezagutzera ematea**.
- Hondakinen prebentzioaren arloko ekintzak **diseinatzeko prozesuan laguntzea**.
- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen esparruan **ekintzak gauzatzen adibide izatea**.
- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen web-orrian **izena emateko prozesuan laguntzea**.
- **Euskal ekintzarik onenak biltzea European aurkezteko**.

- Europako sarirako euskal **hautagaitzei laguntzea**.
- Gauzatutako ekintzen bidez sustatutako ingurumen-hobekuntzei dagozkien **adierazleen jarraipena** egitea.



4.- Argitalpenaren helburua eta iriSmena

Argitalpen honen helburua da Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen esparruan Euskadin 2011. urteaz geroztik gauzatu diren ekintza onenen hautakizun bat aurkeztea

Dokumentu honen bidez honako hau lortu nahi da:


- Euskadin hondakinen prebentzioaren arloan lan egiten duten eragileek 2011. urteaz geroztik Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen esparruan gauzatu dituzten 25 ekintza nabarmenenak ezagutzera ematea.
- Hautatutako 25 ekintzen balioa ezagutaraztea.
- 25 ekintza horiek euskal geografiako beste leku batzuetan erreplikatzeko aukera indartzea.
- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen hurrengo kanpainetarako parte-hartzea sustatzea.
- Hondakinen prebentzioaren arloko eragile proaktiboek agerikotasuna ematea.



5.- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen barruko Euskadiko parte-hartzearen adierazleak

Euskadik modu aktiboan parte hartu du 2011. urteaz geroztik Hondakinen Prebentziorako Europako Astea, hondakinen behar bezalako prebentzioa, berrerabilera eta kudeaketa sustatzeko hainbat ekintzaren bitartez

Ekintzen bilakaera azken 5 urteetan



2019. urtean izan zen parte-hartzerik handiena, 144 ekintzako errekorra ezarri baitzen.

Nabarmentzeko moduko mugarriak

Nabarmentzeko moduko mugarrien artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

- **2013. urtean**

- SEUREk Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen saria irabazi zuen, "Enpresa" kategorian, "Hondakinen prebentziorako kanpo-komunikazioko kanpaina" ekintzarekin.

- **2015. urtean**

- Bizkaiko Elikagaien Bankua finalista izan zen Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen sarian, "Elkartea" kategorian, "Elikagai galkorren xahuketa murriztea" ekintzarekin.
- CEIP Mendiko Eskola HLHI ikastetxea finalista izan zen Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen sarian, "Ikastetxea" kategorian, "Euro Recycling" ekintzarekin.

- **2016. urtean**

- Iparragirre Ikastolak Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen saria irabazi zuen, "Ikastetxea" kategorian, "Guztiontzako lorategia" ekintzarekin.
- Uvesco Taldea finalista izan zen Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen sarian, "Industria" kategorian, "Elikagaien eta bestelako hondakinen kudeaketa integratua" ekintzarekin.

- **2018. urtean**



- IMQ Zorrotzaurre klinikak Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen saria irabazi zuen, "Industria" kategorian, "Hondakin-uretako kutsatzaile emergenteen prebentzioa" ekintzarekin.
- Gipuzkoako Foru Aldundia finalista izan zen Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen sarian, "Administrazioa" kategorian, "Itsasotik mahaira" ekintzarekin.

- **2021. urtean**

- Uvesco Taldea finalista izan zen Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen sarian, "Industria" kategorian, "Garbiguneak" ekintzarekin.
- Axular Lizeoa finalista izan zen Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen sarian, "Ikastetxea" kategorian, "Espaloi jasangarria" ekintzarekin.

- **2022. urtean**

- St. George English School ikastetxeak Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen saria irabazi zuen, "Ikastetxea" kategorian, "Material birziklatuz egindako panel akustikoak" ekintzarekin.



Euskadin jatorria duten EWR-ren Saria jasotzen duten ekintzen taula sinoptikoa

URTEA	SARIA	ERAKUNDEA	KATEGORIA	EKINTZAREN IZENA
2013	Europako irabazlea	SEUR	Enpresa	Hondakinen prebentziorako kanpo-komunikazioko kanpaina
2015	Europako finalista	Euskadiko Elikagaien Bankua	Elkartea/GKEa	Elikagai galkorren xahuketa murriztea
2015	Europako finalista	CEIP Mendiko Eskola HLHI	Ikastetxea	EuroRecycling
2016	Europako finalista	UVESCO	Enpresa	Elikagaien eta bestelako hondakinen kudeaketa integratua
2016	Europako irabazlea	Iparragirre Ikastola	Ikastetxea	Guztionezako lorategia; mundua gure etxean
2018	Europako finalista	Gipuzkoako Foru Aldundia	Administrazio publikoa	"Itsasotik mahaira" birziklatze-kanpaina – Plastikoa gure itsasoetan duen inpaktua: plastikoa berrerabiltzea eta poltsa berrerabilgarri bihurtzea
2018	Europako irabazlea	IMQ Zorrotzaurre	Enpresa	Hondakin-uretako kutsatzaile emergenteen prebentzioa
2021	Europako finalista	Axular Lizeoa	Ikastetxea	Espaloi jasangarria
2021	Europako finalista	UVESCO	Enpresa	Garbiguneak
2022	Europako irabazlea	St. George's British International School	Ikastetxea	Material birziklatuz egindako panel akustikoak

Edizio bakoitzean aurkeztutako ekintzen zerrenda ikusteko, bisitatu honako esteka hau:

[Ingurumen-gaiak - Euskadi Garbia \(ihobe.eus\)](https://ihobe.eus)

6.- Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen barruan Euskadin garatutako ekintza nabarmenak

Ondoren jasotzen dira azken 10 urteetan Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen esparruan Euskal Autonomia Erkidegoan garatu diren 25 ekintza nabarmenenak.

Fitxak eragile sustatzailearen tipologiaren arabera sailkatu dira:



Administrazio/Agintaritza publikoak



Elkarteak/GKEak



Ikastetxeak



Enpresak/Industriak

Administrazio/Agintaritza publikoak



Erakunde mota	Administrazio/Agintaritza publikoa
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egikaritze-urtea	2018
Erakundearen izena	Gipuzkoako Foru Aldundia
Web-orria	www.gipuzkoa.eus
Kategoria/Saria	Europako finalista

Ekintzaren deskribapena

“Itsasotik mahaira” birziklatze-kanpaina - Plastikoa gure itsasoetan duen inpaktua: plastikoa berrerabiltzea eta poltsa berrerabilgarri bihurtzea



Proiektua “Itsasotik mahaira” #PlásticoAlPilPil lemapean garatuko da (“pil-pil” hitza euskal sukaldaritzako erreferentea da, bakailaoa kozinatzeko modu tipiko bati dagokiona).

Guztiok dakigu gure itsasoetan plastikoak eragindako kutsadura-azalpena gero eta kezagarriagoa dela. Horregatik ez dugu beste alde batera begiratu behar, jarduteko garaia da. Eskualde guztietatik asko dugu esateko, eta guztion artean lagundu dezakegu eskala globaleko arazo horri aurre egiten. Globalki pentsatu behar dugu eta tokian-tokian jardun.

Sentsibilizazio-kanpaina honek (Gipuzkoako lurralde osoan) plastikoaren gaikako bilketaren eta ondorengo birziklatzearen garrantzia helarazi nahi die herritarrei. Horretarako, botatzen diren plastikoen problematika azalduko zaie, plas-

tiko horiek gure itsasoetan mikroplastiko bihurtzen direla (planktonaren oso tamaina bertsukoak) eta gero gure mahaian egongo diren arrainek irensten dituztela ikus dezaten.

Kanpainaren xedea da Gipuzkoako 5.000 biztanletik gorako 31 herritan eta Donostiako zenbait auzotan (Altza, Amara, Erdialdea eta Antigua) arrantza-sarek egindako instalazio artistikoak sortzea, botatako plastikozko poltsak eta botilak birziklatzeko bildu eta poliesterezko ehun bihurtzeko, gero poltsa berrerabilgarriak egiteko.

Instalazio artistikoek ontzi bat (eltzea) osatzen dute, 1,5 m-ko altuerako eta 3 m-ko luzerako laukizuzen-formakoa, arrantza-sarez egina. Jendeak plastikozko poltsak eta botilak eraman ditzake, ontzi horretan jartzeko. Sareak zenbait funtzio ditu:

1. Plastikoz egindako poltsak eta botilak sartzen uztea.
2. Eror daitezten saihestea.
3. Bertan botatzen diren poltsa eta botilen kopurua nola handitzen den ikusten uztea (horrela, jendea parte hartzen jarraitzera animatzen da).
4. Egunerokoan aplika daitezkeen prebentzio-adibideei buruzko aholkuak eta datuak jasotzen dituzten mezuak argitaratzen uztea.



Hondakinen Prebentziorako Europako Astea amaitzen denean, berreskuratutako plastikoak EkoRec enpresak (PET birziklatzen espezializatutako Gipuzkoako enpresa bat da) prozesatu eta birziklatzen ditu, ehun bihurtzeko. Birziklatutako ehun hori poltsa eta erosketa-orga berrera-bilgarriak egiteko erabiliko ditu Sin Desperdicio markak (material birziklatuz egindako osagarriak fabrikatzen espezializatutako Gipuzkoako enpresa), Emaus Fundazioak (inklusioren eta ekonomia sozial eta solidarioaren bitartez gizartea eraldatzea xede duen fundazioa) egindako diseinuan oinarrituta.

Kanpaina honetan sortutako poltsak eta erosketa-orgak sare sozialen bitartez zozkatu ziren Gipuzkoan zehar plastikoa biltzen lagundu zuten pertsona guztien artean. Zozketan parte hartzeko, argazkiak atera behar ziren plastikozko materiala ontzietan uzten, eta sareetara igo arestian aipatutako traol-hitzarekin.

Kokapena

Ekintza hau Gipuzkoako lurralde historikoko zenbait udalerritan gauzatu zen: Donostia, Irun, Errenteria, Eibar, Zarautz, Arrasate, Hernani, Tolosa, Lasarte-Oria, Hondarribia, Pasaia, Bergara, Andoain, Azpeitia, Beasain, Azkoitia, Oñati, Oiartzun, Zumarraga, Zumaia, Ordizia, Legazpi, Aretxabaleta, Urretxu, Usurbil, Urnieta, Lezo, Orio, Villabona-Amasa, Astigarraga eta Deba.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Instalazio artistikoak aldi berean inplementatu ziren Gipuzkoako 31 udalerritan zazpi egunez (azaroaren 18tik 24ra, biak barne), udalerrri bakoitzeko leku nagusietan. Gainera eguneko 24 orduetan egon ziren jendearen eskura. Beraz, instalatuta egon zen egunetan plastikozko hondakinak eguneko nahiz gaueko edozein unetan uzteko aukera izan zuen jendeak.

Herritarren parte-hartzea sustatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Emaus Fundazioak zenbait komunikazio-ekintza egin zituzten, eta hainbat hedabideren bitartez ere (adibidez, DonostiTik eta El Diario Vasco) eman zuten kanpainaren berri.

Gainera, kanpaina Twitter, Facebook eta Instagramen eman zen ezagutzera #PlásticoAlPilPil traol-hitzaren bitartez. Poltsa eta erosketa-orga berrerabilgarrien zozketan parte hartu nahi zutenak arduratu ziren zabalkunde hori egiteaz.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza hau originala edo berritzailea da honako hau lortzen duelako:

- Plastikozko hondakinen arazoa agerian jartzea. Plastikozko botilak eta poltsak biltzeko egitura sareen bitartez egin da, herritarrak sortzen dugun plastiko kantitatearen inguruan kontzientziatzeko (sareak tangaren barnealdea ikusten uzten du). Zaborra kantitatea ikusten uzten ez diguten poltsa eta ontzietan botatzen dugunean, sortzen dugunaren nozioa galtzen dugu.
- Erakustea birziklatzeak (kasu honetan plastiko birziklatzeak) berekin dakarrela ingurumen-hobekuntza ez ezik, lanpostu kopuru adierazgarriaren sorrera ere. Proiektu hau ez da zentratzen soilik jatorrian bereiztearen garrantzian. Aitzitik, zenbait erakunderekin (Emaus Foundation, Sin Desperdicio eta EkoRec) lankidetzan jardutearen balio erantsia gehitzen du, eta nabarmentzen du hondakinak ez direla hondakin hutsak, eguneroko objektuak fabrikatzeko berrerabil daitezkeen lehengaiak baizik. Proiektu honen bitartez agerian jartzen da ekonomia zirkularren kontzeptua.



Jarraipen-adierazleak

Kanpaina honek Gipuzkoako biztanleen % 79,88 hartzea lortu zuen, eta 5.000 biztanletik gorako udalerrien % 81,25eraino iritsi zen.

Guztira 1.800 poltsa berrerabilgarri fabrikatu ziren parte hartu zuten herritarrei esker. Poltsa horietako bakoitza fabrikatzeko 7 PET botilaren baliokidea den plastiko kantitatea behar dela kontuan harturik, kanpaina osoan 12.600 PET botila berreskuratu direla esan daiteke.

Ebaluazio-metodologia

Herritarren sentsibilizazio-mailen gorakada urtetik urtera gora egiten duten hiri-hondakinak bereizteko tasen bitartez egiazta daiteke. Proporzio gero eta handiago horiek dira egindako kontzientziazio-ekintzen inpaktua neurtzeko erabiltzen den tresna.

Erreplikagarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko 5.000 biztanletik gorako edozein udalerritan gauzatu daitezkeen proiektua da.



Erakunde mota	Administrazio/Agintaritza publikoa
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea. 2021. urteko gaia: komunitate zirkularrak.
Egikaritze-urtea	2021
Erakundearen izena	Arabako Foru Aldundia
Web-orria	https://web.araba.eus
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Ikusten duzuna baino askoz gehiago dago

Arabako herritarrak hondakinak behar bezala kudeatzeko eta Europar Batasunak horri buruz finkatutako helburuak betetzeko premiaren inguruan sentsibilizatzea helburu izan duen kanpaina bat garatzean eta gauzatzean oinarritzen da ekintza. Gizartea hondakinen tratamendua hobetzeko premiaren inguruan sentsibilizatzeaz gain, desgaitasun intelektuala duten pertsonen potentziala nabarmentzea eta lurraldean talde horren benetako inklusioa lortzea zuen helburu.



“Ikusten duzuna baino askoz gehiago dago” kanpaina bat baino gehiago da, herritarrek hondakinak kudeatzeko ohituretan aldaketa bat sustatzen ahalegintzeko komunikazio- eta sentsibilizazio-estrategia bat modu partekatuan eraikitzeko prozesua da.

Kanpaina zenbait fasetan garatu da (definizioa, kontrastea, sorkuntza, aurkezpena, komunikazio-elementuen sorkuntza) eta prozesua aberasten lagundu duten hainbat erakunderen eta pertsona-profilen parte-hartzea izan du bereizgarri. Egibide ikastetxeak eta Har Eman elkarteak zeregin nabarmena bete dute kanpaina hezurmamitzen. Erakundeek egin diren bilera eta lantegi ugaritan parte hartu dute, Arabako Kontseiluko ingurumen-teknikariekin, Gasteizko Udalarekin eta Ciudadano Kane komunikazio-agentziarekin batera.

Helburu nagusia da mezuek gizartean inpaktu handiagoa izan dezaten lortzea, desgaitasun intelektuala duten pertsona horien nolakotasun bereziei esker: egiazkotasuna, sentsibilitatea, sen ona, argitasuna eta sinpletasuna, eta enpatia-gaitasun ikaragarria. Gerora egingo diren beste kanpaina batzuetan errepikatu nahi den proiektu pilotua da, ingurumen-kontzientzia gizarte-inklusioarekin batera areagotu nahi duena.

Kanpainak Arabako zazpi hiritan zehar egin zuen ibilbidea. Hondakinen Prebentziorako Europako Astea bi ekintza gauzatzeko aukera da: jendea kalean sentsibilizatzea informazio-erakustoki baten bitartez, eta tokiko lantegi bakoitzerako informazio espezifiko duen liburuxka bat banatzea hondakinak murriztu, birziklatu eta berrerabiltzearen inguruan sentsibilizatzeke. Gainera, publizitate-kanpaina bat egin zen lurraldeko irrati nagusietan, desgaitasun intelektuala duten pertsonen egindako iragarkiekin, eta horiek protagonista dituen kanpainaren bideoa ere ezagutzera eman zen. Kanpaina Eguberri-bezperetan amaitu zen Gasteizen egindako azken kale-ekintzarekin.



Kokapena

Ekintza hau Arabako lurralde historikoko zenbait udalerritan gauzatu zen: Audio, Guardia, Murgia, Kanpezu, Ribabellosa, Agurain eta Gasteiz.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Garatu beharreko zabalkunde- eta komunikazio-ekintzak egikaritu eta gainbegiratu zituen komunikazio-bulegoa izan zuen proiektuak.

Proiektua jendartearen hedatzeko eta areagotzeko asmoz, 2.000 liburuxka informatibo banatu, sentsibilizazio-kartelak eta egin beharreko lantegiak iragartzeko kartelak sortu, prentsaurrekoak egin eta informazio-dendekin kanpainak antolatu zituzten.

Gainera, desgaitasun intelektuala duten pertsonen parte hartu zuten bideoak grabatu ziren kanpainan, eta 98 sentsibilizazio-puntu kontratatu ziren, euskaraz zein gaztelaniaz, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait irratirekin.

Azkenik, inpartuko ekintza bat zuen ekitaldi bat egin zen kalean, hiru erakusketa-kuboz osatua.

Lehen edizioaren arrakastaren ondoren, 2022an ekimena eskola-ingurunera eramatea erabaki zen, onarpen handiarekin, eta, beraz, gaur egun edizio berri bat hasi berri da (Hirugarrena), oraingoan desafio formatuarekin Arabako 10 ikastetxerentzat, beren ikastetxeetan hondakinak kudeatzeko proiektu propioa garatu behar baitute.

https://www.youtube.com/watch?v=jVDwFp_Syxl

<https://www.youtube.com/watch?v=jDzpgt73sfo&t=2s>

<https://prentsa.araba.eus/es/-/la-campana-de-sensibilizacion-sobre-residuos-mucho-mas-de-lo-que-ves-desafia-a-10-colegios-a-impulsar-buenas-practicas-en-sus-centros>



Originaltasuna eta berrikuntza

Proiektuak ardatz hartu zuen muina Har Eman elkartekoak diren desgaitasun intelektuala duten pertsonen taldea da, kanpainetan ingurumen-hezitzaileen lana garatu zuten-eta. Proiektua garapen jasangarrirako helburu hauek betetzera bideratu zen:

- 4. GJHa. Kalitatezko hezkuntza: hezkuntza-zerbitzuak eta -instalazioak egokitzea desgaitasuna duten pertsonen lantegiak ingurune egokian hartzeko aukera izan dezaten. Hezkuntza da desberdintasuna murrizteko tresna nagusia.
- 10. GJHa. Desberdintasunak murriztea: desgaitasun intelektuala duten pertsonen gizarte-inklusioa sustatzea, eta, horretarako, aukera-berdintasuna bermatzea.
- 12. GJHa. Produkzio eta kontsumo arduratsua: hondakinak sorkuntza nabarmen murriztea, prebentziorako, murrizteko, birziklatzeko eta berrerabiltzeko jardueren bidez.

Jarraipen-adierazleak

Guztira 727 pertsona kontzientziatzea lortu zen: lantegietan 106 pertsonak parte hartu zuten eta 611 liburuxka banatu ziren.

Ebaluazio-metodologia

Kanpainaren inpaktua ebaluatzeko zenbait adierazle erabili ziren: ekintzetan parte hartzen duten pertsonen kopurua, banatutako liburuxkak, webgunean eta hondakinen tratamenduari buruzko baliabideetan izandako sarrerak, eta lantegietan parte hartu dutenei egindako inkestak. Komunikabideetan izan zuen inpaktuaren analisia ere egin zen.

Erreplikagarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan gauzatu daitekeen proiektua da.





Erakunde mota	Administrazio/Agintaritza publikoa
Gaia	Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egitaritze-urtea	2020
Erakundearen izena	Gipuzkoako Foru Aldundia
Web-orria	www.gipuzkoa.eus
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Helmuga proiektua: moda iraunkorra lortzeko urratsak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren helburu estrategikoen artean dago gaur egungo eredu lineala eraldatu eta ekonomia zirkularreko eredu bihurtzea. Horrela, helburua da eredu-aldaketa horrek berekin dakartzan abantaila sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak aprobetxatu ahal izatea eta Gipuzkoa % 100 zirkular baterantz aurrera egitea.

Ekonomia zirkularraz ari garenean, hondakinen hierarkiaren maila guztietan jarduteko beharraz ari gara. Laburbilduz, aukera berriak aprobetxatu ahal izateko, hondakinak lehengaitzat hartuta, haiek sortzea eta alferrik galtzea saihestuz, eta arazo bat aukera bihurtu ahal izateko.

HELMUGA PROIEKTUA Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren eta Emaus Fundazioaren arteko aliantzatik sortu zen; honela laburbil daiteke: ehungintzaren sektorearen, sektore pribatuaren eta sektore sozialaren arteko lankidetzaren hirukoitza, ekonomia zirkularra indar eragiletzat hartuta, moda jasangarriari lotutako ekimen sozial baten bitartez.

Ekimen honen bitartez, Gipuzkoako hezkuntza-munduko zenbait eragilek (AEG ikastetxea) eta lurralde historiko horretako moda jasangarriaren taldeko diseinatzaileek ("GK Green Fashion") zenbait herrialdetako jantzi tipikoen berrinterpretazioa egin dute ehun-hondarrak edo -hondakinak erabilita, hainbat herrialdetako zenbait kultura-elkarte eta talderekin lankidetzan. Andaluziako, Galiziako, Italiako, Europako Iparraldeko, Ukrainako, Marokoko, Ghanako, Kubako, Kolonbiako, Mexikoko, Nikaraguako eta Peruko jantzi tradizionalak egin dituzte. Mexikoko, Nikaraguako, Kolonbiako, Italiako eta Ukrainako jantzi tradizionalen kasuan, Miramar jauregian egindako moda jasangarriaren desfilearen amaiera gisa aurkeztu zituzten, Dantzaz elkarteko dantzariekin batera.



Ekimen honi esker lankidetzeta-harremana ezarri da Gipuzkoako industriarekin, ehun-hondakinak modu zirkularrean bideratzeko:

- Lehenik, diseinu- eta prestaketa-fasean txertatuko den materiala hautatu da AEG ehungintzako ikastetxearekin batera (ehun-hondarrak Irizarretik eta Ternuatik datoz).
- Aldi berean, material horietatik abiatuta, "GK Green Fashion" taldeko diseinatzaileek migrante taldeek deskribatutako jantzi tradizional herrikoien berrinterpretazioa garatu dute, haien jatorriko herrialdeetako jantzi tradizionalen folklorean oinarrituta.

Kokapena

Ekintza hau Gipuzkoako lurralde historikoko zenbait udalerritan gauzatu zen: Arrasate, Errenteria, Zarautz, Irun eta Donostia.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Proposamen honen bitartez "GK Green Fashion" taldeko moda-diseinatzaileak agerian jartzea eta baloratzea lortu genuen, Gipuzkoako lurralde-garapenean inplikaturik eta moda jasangarriarekin konprometituta dauden eragile gisa.

COVID-19ak sortutako egoeraren ondorioz, proiektua sare sozialen bitartez zabaltzeko modua planteatu zen. Izan ere, sorkariak eta diseinuak bideo eta argazkien bidez erakutsi ziren sare sozialetan, eta proiektua azaldu zen. Gainera, moda jasangarriaren desfilea aprobetxatu zen kanpaina honetan egindako diseinuetako batzuk jardunaldiaren amaieran aurkezteko.

Originaltasuna eta berrikuntza

Proiektua Gipuzkoako bost udalerritan garatu da (Arrasate, Errenteria, Zarautz, Irun, Donostia). Bertan, talde etnikoek berek edo bestelako jatorri geografikoko taldeek beren jatorriko herrialdeko edo eskualdeko arropa tradizionala berrinterpretatu dute, "GK Green Fashion" taldeko diseinatzaileen laguntzarekin, jasangarritasun-gakoak txertatuz. Izan ere, hautatutako materialak berberabiliz, talde horiek deskribatutako arropa tradizional herrikoia berrinterpretatu dute. Talde etniko edo kulturek aktiboki parte hartu dute proiektuan. Horri esker, lankidetzeta sozialeko loturak ezarri ahal izan dira gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren herrialde edo eskualde horietako kultura eta pertsonen artean.

Jarraipen-adierazleak

Proiektuan 15 jantzi tradizional egin ziren guztira, bildutako ehun-hondakinak erabilia.

Ebaluazio-metodologia

Egindako jantzien inbentario bat gauzatu zen, baita horretarako erabilitako hondakinena ere.

Erreplikagarritasuna

Modaren munduarekin zerikusia duen erakunderen batekin lankidetzan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan gauzatu daitekeen proiektua da.





Erakunde mota	Administrazio/Agintaritza publikoa
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egikaritze-urtea	2021
Erakundearen izena	Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla
Web-orria	https://arabakoerrioxa.eus
Kategoria/Saria	

Ekintzaren deskribapena

Autokonpostajea, biohondakinaren kudeaketaren konponbide integral gisa

Guardia-Arabako Errioxako kuadrilla hobekuntza disruptiboko prozesu batean murgilduta dago bere jurisdikzioan hondakinaren kudeaketari dagokionez. Guztira 15 udalerrri eta 23 herrigune ditu, eta 11200 biztanle (azalera: 316 km²).

Ekintza eremuetako bat lurraldeko biohondakinaren kudeaketan oinarritzen da. Beharrezko azterketak egin ondoren, agerian geratu zen kuadrilla horretako kudeaketa eredu protagonista gisa konpostajea orokortzeko aukera, kontuan hartuta herrien ezaugarriak eta biohondakinaren sortzaile handiek adierazitako aukera, adibidez, lurralde hori modelatzen duten upeltegiak. Proposamena kuadrilla mailan sortutako eta osatzen duten udalerriek onartutako ad hoc Ordenantza baten bidez artikulatzen da.

Hautatutako eredu mistoa da. Alde batetik, biohondakinentzako atez ateko bilketa bat sistematizatu da. Guztira, 415 etxebizitza biltzen ditu, baita sortzaile handiak ere, hala nola 5 jatetxe, 6 taberna, 2 etxebizitza turistiko, 4 nekazaritza turismo, 2 hotel, 5 elikadura-dend, autokarabanentzako aparkaleku 1 eta aipatutako upeltegiak, eta gero konpostaje guneetara eramaten da. Bestetik, ohiko drop off sistema eskaintzen da, konpostagailuetarako sarbide kontrolatuarekin eta, gainera, gainerako frakzioko edukiontzien erabilgarritasun oso mugatua dakar, dagokion itxuraren bidez. Kasu batzuetan, bereziki esanguratsuak diren sortzaile handien ondoan dauden autokonpostaje eremuak instalatzen dira, hala nola Marqués del Riscal upategia, prozesuak eta emaitzak optimizatzeko.

Kokapena

Arabako Errioxa osatzen duten udalerrietan egingo da.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Parte-hartzea sustatzeko alde aurretik ezarritako dinamika bat dago, herritarren eta lotutako jarduera sektoreen artean gizartea aktibatuz. Horrek, informazio hitzaldiak egitea, sortzaile handiekin harreman pertsonalizatuak izatea eta birziklatze kitak modu pertsonalizatuan banatzea dakar.



Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintzaren originaltasuna eta berrikuntza honetan datza:

- Biohondakinen kudeaketa modalitateen hedapen pragmatikoa, jatorriari eta ekoizpenari dagokienez dauden errealitateetara egokitua, eta bideragarritasun azterketa zorrotz eta sakon batetik abiatuta diseinatua.
- Gizarte laguntzako dinamika eraginkorra, konpostagailuetara ekarritako biohondakinen kalitatea eta kantitatea bermatzen duena, eta ongarrien legeria betetzen duen konposta sortzeko funtsezkoa dena.
- Kudeaketa azpiegituren erabilera egokia bultzatzen duen teknologia integratzea, bai eta hondakinen eta sortutako ekoizpenen trazabilitatea ere.



Jarraipen-adierazleak

Kripan bezalako udalerrietan, herriko biohondakinen % 100eko kudeaketa egokiaz gain, gainerako zatikia % 42 murriztea lortu da. 2018an Errioxa osoan 5.100.000 gainerako frakzio bildu ziren eta 2023aren amaieran zifra hori jaitsi da: 3.800.000 kilo.

Era berean, ontzien zatikiaren bilketa nabarmen handitu da eta, gainera, bertan inpropioak sartzea minimizatu da.

Eltziegoren kasuan, datuak eguneratu ondoren, 137 tona biohondakin biltzen dira, eta horietatik 44 tona Marques de Riscal upategiari dagozkio. Horrek guztiak 13426 euroko aurrezpena dakar Jundizko tratamendu mekaniko biologikoko plantan onartzeko eta kudeatzeko. Udalerrri hori gaikako bilketaren % 57ra iritsi da dagoeneko.

Herritarren gogobetetzea nabarmen handitu da, hondakinen azken helmuga zein den hautematen baitute, material baten fabrikazioan partaide sentitzen baitira, kalitate handiko konpost bat, beraiek bizi diren lurzoruak birsortzen dituen. Era berean, gainerako zatikiak behera egin duenez, garraioak nabarmen egin du behera, eta horrek argi eta garbi erakusten du zer inpaktu eta osasun adierazle dauden lotuta.

Ezarritako ereduak hobekuntzak eragin ditu Euskadiko Autokonpostaje Komunitarioa arautzen duen Dekretuari begira.

Ebaluazio-metodologia

Kuadrillan udal hondakinak kudeatzeko sistema ezartzeak neurketa sistematizatuak eta aldizkakoak dakartza eta, horiei esker, aurreko atalean deskribatutako adierazleak destilatu daitezke.

Erreplikagarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein mankomunitate, kuadrilla edota udalerritan gauza daitekeen proiektua da.



Erakunde mota	Administrazio/Agintaritza publikoa
Gaia	Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea.
Egikaritze-urtea	2014
Erakundearen izena	Bizkaiko Foru Aldundia
Web-orria	https://web.bizkaia.eus
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Janari-Soberakinekin egindako errezetak

Bizkaiko Foru Aldundiak, Artxandako (Bilbo) Goi-mailako Ostalaritza Eskolarekin lankidetzan, sukaldaritzako liburu bat argitaratu zuen. Eskolako chef saridunek errezeta erraz eta erabilgarriak bildu dituzte, beste janari batzuetako elikagai-soberakinak osagai nagusizat dituztenak. Errezetak soberakinen arabera kategorizatuta daude: haragiak / itsaskiak / frutak eta barazkiak / ogia eta pastelak.

Errezetaz gain, erosketa egiten den unetik bertatik soberakinak saihesteko diseinatutako aholku batzuk ere badaude; adibidez, pertsona bakoitzeko neurriak eta elikagai kantitateak. Horrela, erosterakoan elikagai kantitateak erabakitzen lagundu nahi da.

Sukaldaritzako liburua formatu digitalean egin da. Beraz, deskargatu egin daiteke eta egokia da edonorentzat. Webgune espezifiko bat sortu da sukaldaritzako liburua irakurtzeko eta deskargatzeko.

Kokapena

Ekintza hau Bilbon gauzatu zen.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Dokumentua formatu digitalean deskargatzeko erabilgarri dago; beraz, edonork eskura dezake. Gainera, ekintza honen aipamenak argitaratu ziren Bizkaian zabalkunde handia duten elikadurari, ingurumenari eta hondakinen kudeaketari buruzko zenbait aldizkaritan.

Jarduera hori ugariagoa eta hedatuagoa izan da 2021ean, eta emaitzak hemen ikus daitezke:

https://www.bizkaia.eus/documents/842933/10284553/RECETARIO_DIPUTACION_CAS.pdf/

[7ba565dc-7d12-8519-5795-87e03ee580d0?t=1637151457398](https://www.youtube.com/watch?v=QYlj1Hj-9Yc) baita Bizkaiko Youtubeko kanalean dauden errezeten bideo batzuk ere.

7 dira: <https://www.youtube.com/watch?v=QYlj1Hj-9Yc>



Originaltasuna eta berrikuntza

Elikagai-soberakin berrerabiltzeko ideia ez da berria, baina kasu honetan prestakinak Euskal Autonomia Erkidegoan gehien erabiltzen diren elikagaiekin egiten dira, Europan dauden beste ekimen batzuen desberdinak izan daitezke-eta. Gainera, badu nobedade bat: liburuaren zati bat erosterakoan elikagai-soberakin gutxiago sortzera (jatorrian prebenitzea) bideratuta dago, eta ez berrerabiltzera soilik.

Jarraipen-adierazleak

Dokumentu hau egin zen unean, argitaratutako sukaldaritzako liburuaren 1.044 deskarga zenbatu ziren guztira.

Ebaluazio-metodologia

Deskarga kopuruaren bitartez jakin daiteke zenbat familia kontzientziatu diren prebentzioaren arloan eta elikagaiak berrerabiltzearen inguruan.

Erreplikagarritasuna

Ostalaritzaren munduko erakundeekin lankidetzan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan gauzatu daitekeen proiektua da.





Erakunde mota	Administrazio/Agintaritza publikoa
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea.
Egitaritza-urtea	2013
Erakundearen izena	Uribe Kostako Mankomunitatea
Web-orria	www.uribekosta.eus
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Ikastetxeetan ogitarteko-zorroak (Boc'n ROLL) entregatzea

Ekintza hau honetan oinarritzen da: eskola-ikasleek (batez ere 2 eta 12 urte bitartekoek) arratsaldean hartu ohi dute askaria, eskola-eguna amaitzen dutenean, Mediterraneoeko eskualdeetan (askari hori batez ere ogitartekoak izaten dira). Ogitartekoak biltzeko erabilitako ontzien hondakinek arazo garrantzitsua sortzen dute maiz hondakinak sortzeari dagokionez. Gai horrek maila indibidualean oso adierazgarria ez dirudien arren, arazo nabarmena sortzen du eskola-kudeaketarako, eskola-instalazioak aldi berean erabiltzen dituzten ikasleen kopurua kontuan hartuta.

Ekimenaren helburua da ogitarteko-zorro berrerabilgarriak erabil daitezten sustatzea, aluminio-paperaren eta plastikozko poltsen alternatiba gisa. Boc'n ROLL enbalajea oihal ekologikoa eta berrerabilgarria da, ogitartekora moldatzeko egokitzen dena eta otamena jateko gainazal garbia eskaintzen duena. Behin eta berriz erabil daiteke, eta garbigarria da erabat. Alternatiba honek erabili eta botatzeko materialen erabilera murrizten du eta baliabide naturalen balioa handitzen du.

Ekintza honen helburu nagusia da ikasleak eta haien familiak eguneroko jardueretan materialak berrerabiltzearen inguruan hezteak. Ekimen honek, zehazki, hiru mailako sentsibilizazioa du ardatz:

- Familiaren maila. Otamena egunero prestatu ahala, zorroak erabiltzearen onura eta balio erantsia ikusiko dituzte.
- Ikasleen maila. Giro garbiagoa antzemango dute eskola-patioetan eta deuseztatze-erakundeetan.
- Eskola-komunitatearen maila. Inplikaturako eragile guztien artean ohitura jasangarriak sustatzea.

Ekimenaren abantaila nagusiak honela laburbil litezke:

- Ingurumena errespetatzen du: erabili eta botatzeko ontziak ordeztu ditu.
- Higienikoa: gainazal garbia eskaintzen du ogitartekoa gainean jartzeko.
- Berrerabilgarria.
- Oso erraz garbitu daiteke. Nahikoa da zapi heze bat pasatzea. (30 °C-tan garbitzekoa).
- Askarira edo elikagaietara egokitzen da.
- Oso arina. Poltsikoan eraman daiteke.
- Berrerabiltzeko eta lehengaiak aurrezteko kultura sustatzen du.

Kokapena

Uribe Kostako Mankomunitateko zazpi udalerritan gauzatu da: Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ekintza honetan garrantzi handikoa da eragileak (hezkuntza-komunitatea eta familiak) inplikatzea eta koordinatzea, ikasleei mezu bakarra emateko: materialak berrerabiltzea eta baliabide naturalei balioa ematea.

Beraz, konexio koherentea izan behar da eskolan ezagutzera ematen diren mezuen eta etxean ikusten dutenaren artean, ikasleen parte-hartzea sustatzeko.

Koherentzia hori hartzaileentzat ondo diseinatutako parte hartzeko metodo baten bidez baino ezin da lortu, eta mezu eta helburu argiak ezagutzera eman behar dira.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza honen berrikuntza, batez ere, edozein ikastetxetan ezartzeko erraztasunean datza, ikasleak ez ezik, familia-unitate osoa kontzientziatzeko aukera emanez. Horrela, ekintza honek ikasleen komunitatea, irakasleak eta familiak egiten ditu partaide.

Era berean, hain ohitura-aldaketa sinple horrek (erabili eta botatzeko ontzi baten ordean ontzi berrerabilgarri bat erabiltzea) bide eman diezaieke familiei eguneroko beste alderdi batzuetan beren kontsumo-ohiturak birplanteatzeko eta erabili eta botatzeko beste hondakin mota batzuk ere prebenitzea lortzeko.

Jarraipen-adierazleak

1.200 boc'n-roll banatu ziren guztira.

Ebaluazio-metodologia

Banatuak unitateen bitartez jakin ahal izango dugu zenbat familia kontzientziatu diren prebentzio-gaietan eta ontziak berrerabiltzean (bereziki elikagaietarako ontziak).

Erreplikagarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan gauzatu daiteke.



Elkartea/GKEa



Erakunde mota	Elkartea/GKEa
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea.
Egikaritze-urtea	2015
Erakundearen izena	Bizkaiko Elikagaien Bankua
Web-orria	https://www.bancali-biz.org
Kategoria/Saria	Europako finalista

Ekintzaren deskribapena

Elikagai galkorren xahuketa murriztea

Ekintza honetan, iraungitzeaz zeuden elikagai galkorrak jaso ziren 60 supermerkatutatik 4 furgonetaren bidez.

Elikagaiak Elikagaien Bankuaren biltegi nagusiraino eramaten dira, eta han sailkatu eta hautatu egiten dira. Hara ongintzako zenbait erakunde joaten dira elikagaiak hartzera eta erakundearen bertan zerbitzatzen dizkiete behar dituzten pertsoneri.

Kokapena

Ekintza hau Basauri eta Bilboko udalerrietan gauzatu zen.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ekintza hau parte hartu zuten supermerkatuetan sustatu zen, baita elikagaiak bazterketa-egoeran zeuden pertsonen artean banatzeaz arduratu ziren elkarten bitartez ere.

Mezu horiek Bizkaiko Elikagaien Bankuaren beraren komunikazio-tresnen bitartez indartu ziren.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza honen izaera berritzailea ekintza beraren bidez bi arazori aurre egitean datza:

- Alde batetik, elikagai-soberakina hondakin bihurtu dadin saihestea.
- Bestetik, bazterketa-egoeran dauden pertsoneri kontsumitzeko baldintza optimoetan dauden elikagai osasungarriak ematea.

Ekintza honi esker erakunde publiko-privatuen arteko lankidetzak lortzen da gizarte- eta ingurumen-arloko arazoei konponbidea emate aldera.



Jarraipen-adierazleak

2015eko maiatzetik abuztura 28 tona elikagai aprobetxatu ziren. Horrez gain, hilean 20 tona fruta eta barazki erretiratu ziren Mercabilbaotik. Batez ere soberako produktuak edo konfiskazioen ondoriozkoak izan ziren.

Ebaluazio-metodologia

Hondakin bihurtzea saihestu zuten elikagai tonak kontabilizatu ziren.

Erreplikagarritasuna

Elikagai-xahuketaren prebentziora bideratutako edozein elkarteren bitartez gauzatu daiteke ekintza hau, supermerkatuen eta merkatuen lankidetzarekin.





Erakunde mota

Elkartea/GKEa

Gaia

Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea.

Egikaritze-urtea

2014

Erakundearen izena

Gipuzkoako Elikagaien Bankua

Web-orria

<https://bancoalimentosgipuzkoa.org>

Kategoria/Saria

Euskadiko finalista

Ekintzaren deSkribapena

Elikagaien Bankuaren Sariak

Gipuzkoako Elikagaien Bankua irabazi-asmorik gabeko erakundea da, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan ezarria eta Eusko Jaurlaritzak, 2003ko abenduaren 2ko 292/2003 Dekretuari jarraikiz, onura publikoko erakunde deklaratu.

Bere aplikazio-esparrua Gipuzkoako lurralde-mugen barruan garatzen da elikagaiak biltzeko eta banatzeko, are elikagaien beste banku batzuekin trukeak egiten direnean ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Gipuzkoako Elikagaien Bankuak "azken orduko merkatu" bat abiarazi zuen. Horren bidez, hainbat enpresak dohaintzan emandako elikagaiak bizkor iristen dira behar handiena dutenen artean banatzen dituzten gizarte-erakundeetara.

Ekintza honen bidez, sariak edo goraipamenak eman nahi zitzaizkien Elikagaien Bankuaren enpresa dohaintza-emaileei, ingurumen- eta gizarte-ekimen honen arrakastari egindako funtsezko ekarpenen errekonozimendu gisa.

Kokapena

Ekintza hau Donostiako udalerrian gauzatu zen.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Sariak agerian jartzen du elikagai-xahuketa saihesteko egindako lana, eta gizarteari erakusten dio estrategia irabazlearen garrantzia: xahuketa murriztea eta baliabide bat (elikagaia) zailtasunak dituzten pertsonentzat erabiltzea.

Originaltasuna eta berrikuntza

Gisa horretako oroitzapenezko ekitaldien asmoa da erakunde dohaintza-emaileei agerikotasuna ematea eta gainerako erakundeak parte hartzera animatzea.



Jarraipen-adierazleak

“Azken orduko merkatuko” elikagai kantitateak gora egin du urtetik urtera, eta 2013an sarrerak 837 tonara iritsi ziren. Kantitate horiek jada ez dira joaten zabortegetara; aitzitik, helburu sozial garrantzitsua lortzen laguntzen dute.

50 goraipamen banatu dira guztira.

Ebaluazio-metodologia

Ekintza hau egindako goraipamenen bitartez neur daiteke, baita saritutako eragileek bildutako tona kopuruaren bidez ere.

Erreplikagarritasuna

Elikagai-soberakinak biltzeaz arduratzen diren elkarteetan gauzatu daiteke, ongintzako hainbat erakunderi dohaintzan emateko, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonen artean banatzeko.





Erakunde mota	Elkartea/GKEa
Gaia	Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea.
Egikaritze-urtea	2013
Erakundearen izena	Erakunde Sanitario Integratua (ESI)
Web-orria	www.osakidetza.euskadi.eus
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Pieza ortopedikoak dohaintzan emateko datu-base bat sortzea

Zumarragako Ospitalea hainbat eragile inplikatzeko dituzten ekimen jasangarriak sustatzen dituen ospitale publiko proaktiboa da. Hondakinen Prebentziorako Europako Astean zehar material ortopedikoa berrerabiltzea sustatu zuten.

Erakunde sanitarioa denez, erakundearen jardueretan sortutako hondakinak hobeto berrerabiltzeko ekintza bat antolatzea erabaki zuen ospitaleak. Dagoeneko behar ez dituzten ekipamendu edo material ortopedikoak (hala nola gurgil-aulkiak, makuluak, ospitaleko oheak...) dituzten eta horrelako materiala behar duten beste pertsona batzuei dohaintzan eman nahi dizkieten pertsonak biltzean datza proiektu hau. Ekintza honen helburua da material ortopedikoaren berrerabilera sustatzea eta horren hondakinak sor daitezkeen prebenitzea. Oro har, material horren erabilera amaitzen denean, etxeetan hondakin-fluxu bihurtzen da.

Jarduera honen asmoa izan zen, alde batetik, hondakin-fluxu horretako hondakinak berrerabiltzeari eta prebenitzeari balioa ematea, eta, bestetik, horrelako materialak behar dituzten "baliabide urriko" pertsonen laguntzea. Ekintza honen funtzionamendu egokirako funtsezko faktoreak izan ziren koordinazioa eta informazioarako irispidea.

Ekimen honen aplikazioak honako elementu hauek izan zituen oinarri:

- Posta elektronikoko kontu bat erabilgarri izatea. Kontu horren bitartez, material ortopedikoa daukatenean material hori transferitzeko moduari buruzko informazio espezifiko eta aholkularitza lor lezakete.
- Hartzailearen eskarien eta dohaintza-emaileen material erabilgarriaren erregistroa.

Proiektuak harrera ona izan zuen ospitaleko zerbitzuen eta pazienteen aldetik.



Kokapena

Ekintza hau Zumarragako Ospitalean gauzatu zen.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Kanpaina honek ahalbidetu zuen material ortopedikoak berreskuratzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko aukerak ezagutzera ematea eta zabaltea. Izan ere, ezezagunak dira gurpil-aulki bat hondakin-fluxu gisa identifikatzen ez duten herritar askorentzat, eta gogoan izan behar da Espainiako etxeetan gisa horretako materialetatik datozen hondakinen kantitate handiak sortzen ari direla.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekimen hau beste osasun-zentro eta ospitale batzuetara transferitzeko ahalmena oso handia da. Izan ere, material ortopedikoa Europa osoan baztertzen da eta programa abian izan den bitartean garatu diren ekintzak erraz jar daitezke praktikan horretarako koordinazio egokia badago.

Jarraipen-adierazleak

Guztira 160.000 paziente kontzientziatzea lortu zen.

Ebaluazio-metodologia

Ebaluazioa hiru adierazleren bidez gauzatu daiteke:

- Ekimenak kontzientziatu dituen pazienteak.
- Dohaintzan emandako material ortopedikoen kopurua.
- Izena eman duten parte-hartzaileen kopurua (hartzaileak eta emaileak).

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ospitaletan gauzatu daiteke.





Erakunde mota	Elkartea/GKEa
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea.
Egitaritze-urtea	2021
Erakundearen izena	Fundación Cristina Enea
Web-orria	www.cristinaenea.eus
Kategoria/Saria	Acción Destacable

Ekintzaren deskribapena

Plastikorik gabeko ikastetxea

Ekintza honen helburu nagusia ikastetxeetara bideratzen da, eta plastikoak eta ontziak jatorrian murriztea du xede.

Egunero hondakin asko biltzen da ontzi arinen paperontzietan, hamaiketako egiteko ekartzen dituzten produktuen ondorioz. Ikasleak eta familiak erabileraren ondoriozko produktuen gehiegizko erabileraren inguruan kontzientziaztea da asmoa.

Hondakin prebentzioaren arloan irakaste hutseko bestelakoa da kanpaina. Ekintzarako deia da, parte hartzea animatzekoa, eta ahaleginak irakasleengan bakarrik ez zentratzekoa. Hezkuntza-komunitate osoak parte hartzen du, bai ikastetxean bai nork bere etxebizitzatik.

Kokapena

Ekintza hau udalerrri hauetako zenbait ikastetxetan gauzatu zen: Aretxabaleta, Arrasate, Astigarraga, Azpeitia, Barakaldo, Beasain, Bergara, Bermeo, Bilbo, Donostia, Durango, Elgoibar, Elorrio, Eskoriatza, Getxo, Hernani, Karrantza, Bastida, Laukiz, Leioa, Lesaka, Lezo, Markina-Xemein, Ordizia, Ortuella, Pasaia, Santurtzi, Soraluze, Tolosa, Ugao, Urnieta, Urretxu, Gasteiz eta Zarautz.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Kanpaina prestatzeko honako elementu hauek sortu dira:

- Ikastetxean jartzeko dibulgazio-posterra.
- Kanpainaren liburuxka informatiboa, familiei zuzendua, hondakinak prebenitzen laguntzen duten ekintzak eta keinu txikiak azaltzen dituena.
- Irakasleentzako gida, kanpaina ikastetxean garatzeko jarraibideak biltzen dituena.
- Paperontzien gainean jartzeko kartel-eredua, Plastikorik gabeko astearen berri ematen duena.
- Astebete lehenago eta kanpainan zehar hondakin-bilketari buruzko datuak hartzeko orria.
- Ikasleek ideiak garatzeko poster zuria.
- Era berean, informazioa Euskadiko eta Nafarroako ikastetxe guztietara bidaliko da.



Dokumentazio guztia esteka honetan deskarga daiteke: <https://labur.eus/HEcgj>

Kanpainari babesa emango zaio gure sare sozialetan, astearen inguruko ekintza batzuekin batera:

- Dibulgazio-mikroklipek.
- Unitate didaktikoak.
- Irakasleek deskarga ditzaketen materialak.

Originaltasuna eta berrikuntza

Kanpainaren berezitasuna da aste horretan ikastetxera ekarriko diren ontzi guztiak gero berriz etxeetara itzuliko direla. Familiak erabilera bakarreko produktuen gehiegizko erabileraren inguruan kontzientziatu nahi ditugu, eta bilgarri eta ontzi berrerabilgarriak erabiltzera animatu.

Jarraipen-adierazleak

Sentsibilizazio-kanpaina hau Euskal Autonomia Erkidegoko 49 ikastetxetan gauzatu zen.

Ebaluazio-metodologia

Aldaketa horren aurreko erresilientzia ez da zaila izango ikasleek erabilera bakarreko produktuak erabiltzeari utzi eta bilgarri berrerabilgarriak erabiltzeari ekiten diotenean. Kanpainaren barruan jarraipena egin zen, ikastetxeek aurreko eta ondorengo konparazioa egin zezaten eta erabiltzen ari ziren produktuen erabilerari buruzko gogoeta egin zezaten.

Erreplikagarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan gauzatu daiteke.

Ikastetxeak



Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea.
Egikaritze-urtea	2016
Erakundearen izena	Iparragirre Ikastola
Web-orria	www.iparragirre.org
Kategoria/Saria	Europako irabazlea

Ekintzaren deskribapena

Guztionezako lorategia; mundua gure etxean

Iparragirre Ikastolako ikasleek (2 eta 6 urte bitarteko neska-mutilak) abian jarri dituzten birziklatzearen eta hondakin-murrizketaren inguruko ekintzak eta hezkuntza-proiektuak jasotzen ditu ekintza honek.



Ekimen honek ardatz hartzen ditu ikasleek egunez egun garatzen dituzten ekintzak, ekimen honen helburuaren ingurukoak: hondakinen kudeaketari buruzko sentsibilizazio-ekintzak ezartzea. Hala, ikasleek zenbait material berrerabiltzen dituzte, hala nola kartoia, tapoiak, poteak, botoiak edo oihalak, mota guztietako proiektuak abian jartzeko. Horietako batean, adibidez, inguru hurbilena ezagutzera zuzendutakoan, ikasleek Bilboko eraikinen maketak egin dituzte: Guggenheim, San Mames, Euskalduna Jauregia, Iberdrola dorrea edo Karola garabia.

Beste kasu batzuetan, prozedura berari jarraikiz, ikasleek zenbait jostailu egin dituzte, hala nola futbolinak, igelak edo labirintoak, edo inauterietarako mozerro-jantziak, edo gizateriaren historian zehar ibili dira, kasu horretan ere beraiek zenbait material berrerabilgarriekin egindako instalazioen bitartez.

Kokapena

Iparragirre Ikastolan gauzatu da, Bilboko udalerrian.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ekintza hau ikastolaren komunikazio-kanalen bidez zabaldu da, baita ikasleen familien artean ere.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza honen bidez txiki-txikitik kontzientziatu nahi dira 2 eta 6 urte bitarteko ikasleak hondakinak berrerabiltzearen eta prebenitzearen garrantziaren inguruan. Erakusten zaie hondakintzat har daitekeen zerbait lehengaia izan daitekeela, adibidez, jostailuak egiteko.

Jarraipen-adierazleak


Guztira 500 ikaslek parte hartu dute.

Ebaluazio-metodologia

Ikasleen parte-hartzea kontabilizatzen da.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau edozein ikastetxetan gauzatu daiteke 2 eta 6 urte bitarteko mailetan.





Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egikaritze-urtea	2015
Erakundearen izena	CEIP Mendiko Eskola HLHI
Web-orria	https://lucasreyeskola.hezkuntza.net
Kategoria/Saria	Europako finalista

Ekintzaren deskribapena

EuroRecycling

Aurretik proiektu bat egin zen Europako hiru eskolarekin (Italia, Polonia eta Greziakoekin) lankidetzan. Proiektu horretan Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleek parte hartzen zuten, hondakinak murriztu eta berrerabiltzearen inguruan kontzientziazteko eta hori praktikan jartzeko helburuarekin.

Proiektuaren arrakastari esker, orduan egindako jardueretako asko ikastetxean iraunkorki egin beharrekotzat hartu dira. Ikastetxean iraunkorki egiten diren jarduerak honako hauek dira:

- Ikasleek eta haien familiek pila erabiliak, CDak, plastikoa eta abar ekar ditzakete eskolara birziklatzeko. Edukiontzia prestatu dira eskolan.
- Ikasleek energia berriztagarriekin esperimentatu zuten, eta eguzki-haizagailuak sortu zituzten.
- Hezkuntza-eragile guztiak inplikatu ziren: jantokia (sukaldean nola birziklatzen den adierazi ziguten); administrazioa (informazio-ohar gehienak posta elektronikoz bidaltzen direla adierazi zigun, papera aurrezteko, eta ohar guztiak bi aldetara egiten direla).
- Gabonetan, ikasleek paper birziklatuarekin prestatzen dizkiete kartak Erregeei eta Olentzerori. Beraiek sortzen dute paper birziklatua.
- Bigarren urtez jarraian, GKE batekin lankidetzan aritu zen urtean astebetetz, erabilitako arropa eta oinetakoak biltzeko, ondoren berrerabiltzeko.
- Eskolan berotegi bat sortu da, eta jantokira joaten diren ikasleek hondakin organikoak bereizten dituzte, berotegian erabiltzeko konpostajea egiteko.
- Lehen aipatutako lau herrialdeetako ikasleek material birziklatuarekin egindako opariak bidali zizkioten elkarri.
- Herrian hondakin organikoetarako edukiontzi bat jartzeko eskatu zitzaion Udalari, eta ezarri egin da.

Kokapena

Amurrioko CEIP Mendiko Eskola HLHI ikastetxean egin da.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ekintza hau ikastetxeko komunikazio-kanalen bidez zabaldu da, baita ikasleen familien artean ere.

Originaltasuna eta berrikuntza

Berrikuntza eguneroko hainbat alderdi jorratzean datza (paperaren erabilera, materialen berrerabilpena, hondakin organikoak, energia berriztagarriak, etab.), hondakinen prebentzioa sustatzeko ikuspegi indibidualetik egin daitezkeen ekintza asko daudela kontzientziatzeke.

Jarraipen-adierazleak

Lehen Hezkuntzako seigarren mailako kurtso osoak parte hartzea.

Ebaluazio-metodologia

Ikasleen parte-hartzea.

Erreplikagarritasuna

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan gauzatu daiteke.





Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egitaritze-urtea	2021
Erakundearen izena	Axular Lizeoa
Web-orria	www.axular.eus
Kategoria/Saria	Europako finalista

Ekintzaren deskribapena

Espaloi jasangarria

Axular Lizeoa ikastetxeak garapen jasangarrirako helburuei erantzuteko eta kontzientzia ekologikoa sustatzeko ildoan lantzen du. 2021ean espaloi jasangarriaren proiektua gauzatu zuen: plastikozko botilen eta birziklatutako materialen nahastetik abiatuta sortutako espaloi berritzailea; horrela, bere komunitatean ingurumena eta ekonomia zirkularra kontserbatzen laguntzeko.



Axular Lizeoak sustatutako ekintza honek Grupo Campezo eta Ekomodo enpresen laguntza jaso zuen. Grupo Campezoek garatutako zoladura, funtsean, material birziklatuen nahaste bat da. Material horien artean daude, adibidez, plastikozko botilak (PET) eta altzairuzko agregatuak. Ekomodo enpresak tapoiak erabili zituen altzari jasangarriak (bankuak eta zabor-edukiontzia) egiteko, eta horiek espaloian jarri zituzten.

Grupo Campezo, Ekomodo eta abarrekin elkarrizketa informatiboak izatea izan zen kanpaina, ikasleei espaloiak eraikitzeko prozesua azaltzeko eta horretarako ekonomia zirkularra nola erabili den azaltzeko.

Ikasle gazteenekin (3-8 urte) "Ekolo" ingurumen-maskota erabili zen proiektua azaltzeko eta botilen bilketa sustatzeko.

Ekintza horri laguntzeko, honako jardura hauek gauzatu ziren:

- Nekane Arzalluz Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariaren bisita. Lehen mailako ikasleek proiektuaren aurkezpena egin zioten.
- Asteaz zehar, ikasleek sortutako hondakinak monitorizatu ziren.
- "Ekolo" k (ingurumenarekin lotutako maskotak) sentsibilizazio-jardura bat egin zuen.
- Espaloien proiektu jasangarriari itzuli ziren botilen kopurua zenbatu zen. Horretarako, ospakizun-ekitaldi txiki bat antolatu zen. Ekitaldi horretan, ikasleek botilak kontatu zituzten eta EKOREC konpainiari botilen lehen bidalketa egin zioten.
- Aldizkari orokor eta masibo bat bidali zitzaion ikasleei, familiei eta gizarte-eragileei. Bertan, gauzatu-tako jardura guztiak kontatzen dira.



Kokapena

Ekintza hau Donostiako Axular Lizeoa ikastetxean egin da.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Proiektu hau gainerako eskoletara zabaltzeko, ikastetxearen webgunearen eta blogaren bidez zabaldu zen. Argitalpenak egingo dira ikastetxeko sare sozialetan (Facebook, Twitter, Instagram, LinkedIn eta Tumblr).

Halaber, Inika komunikazioko barne-sistemaren bidez komunitate osoari jakinarazi zitzaion, barne hartuta jardueren iragarkiak, kanpainak eta lortutako emaitzak, tokiko komunikabideak eta hainbat komunikazio-kanal.

Originaltasuna eta berrikuntza

“Espaloi jasangarria” plastikozko botilekin egindako lehen espaloia da. Argi dago ekonomia zirkularreko ekintzak gauzatu daitezkeela eskolen azpiegitura hobetzeko.

Proiektu hau garapen jasangarrirako helburuak ikasleei, familiei eta, oro har, komunitateari hurbiltzeko modu bat da.

Jarraipen-adierazleak

Guztira, plastikozko 50.000 botila birziklatu erabili ziren.

Espaloi jasangarriaren aurkezpenean 10.000 botila eta 3.000 tapoi bildu ziren enpresa laguntzaileetara itzultzeko.

Ebaluazio-metodologia

Espaloiak bide-segurtasunerako sarbide-arazo bati erantzuten dio, ez baitago oinezkoentzako bide segururik ikasle, irakasle, administraziozko langile eta familiakoentzat, besteak beste.

Zenbait adierazle erabil daitezke proiektua ebaluatzeko:

- Lortutako botila eta tapoien kopurua: Neurketa bolumena erabiliz egingo da.
- Egindako jardueren kopurua: komunitatea kontzienteki eta motibatuta mantentzea, ideia berriak sortzeko.
- Gizartean izandako inpaktu kopurua eta jasotako ebidentzia: Udalarekin batera, komunitatea birziklatzeko eta garbitzeko ekintzak monitorizatuko dira Axular Lizeotik gertu.
- Adierazle subjektiboen neurria: ikasle eta familien kontzientzia-maila.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau edozein ikastetxetan gauzatu daiteke, premietara egokituta (trazadura edo zoladura mota desberdinak, altzarien beharrak, etab.), zoladurak eta/edo altzariak fabrikatzeko hondakinak aprobetxatzen dituzten enpresen laguntzarekin.





Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea.
Egikaritze-urtea	2020
Erakundearen izena	EGIBIDE
Web-orria	www.egibide.org
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Ingurumen-hezkuntza Planeta Finitu batean



Ikasturte honetako erronka, Eusko Jaurlaritzaren ETHAZI metodologiaren esparruan, ikasturtean zehar hainbat aupada gainditzean oinarritzen da, eta "Ingurumen-hezkuntza Planeta Finitu batean" izena eman zaio. Erronka horren esparruan, ingurumen-hezkuntzako programa bat garatzeko eskatu zaie ikasleei, hondakinen sorrera murrizteko eta/edo horiek prebenitzeko hezkuntza eta komunikazioa sustatzeko, eta gainerako ikasleekin gauzatu dezaten.

Horretarako, ikasgela honela deitutako 4 taldetan banatu da: "AMA NATURA", "BASO BIZIA", "EKO-HEZI" eta "TANTA".

1. AMA NATURA

1. jarduera. Hitzaldia, hondakinek ingurumenean dituzten inpaktuei eta horri aurrea hartzeko moduari buruzkoa, eta hitzaldiaren ondoren xede-publikoaren aldetik bideoak egiteko proposamena.
2. jarduera. Urrezko 3 arauetako buruzko hitzaldia eta erakustaldi-lantegia. Bertan, hondakinen bereizketa egokia eta hondakinak sortzea saihesteko modua eztabaidatu eta irakatsi ze.

2. BASO BIZIA

- Urrezko 7 arauen Triviala. Trivial estiloko galdetegi bat egin da urrezko 7 arauen inguruko galderekin.
- Birziklatutako materialekin egindako lantegia. Hondakinak berrerabiltzeko aukera guztiak erakusteko lantegi didaktiko bat egin da.
- Garbigunearen garrantzia. Heziketa-hitzaldi bat egin zen gai hauen inguruan: batetik, garbiguneak, eta, bestetik, garbigune mugikor berriei eta "berrerabilgunea" birziklatze-puntuari buruzko beharrezko datu guztiak; ikasleen artean horien erabilera sustatzeko.

3. EKO-HEZI

1. jarduera. Gogoeta-hitzaldia: maila indibidualean eta kolektiboan nola lagundu hondakinak murrizten eta, horrela, haren eragina arintzen.
2. jarduera. "Zer egin dezaket?" jokoa abiaraztea, taldeak berak diseinatua. Jokoari buruzko informazioa:

- Gehienez 75 gai, 2030 Agendan jasotako uraren, energiaren eta abarren birziklapenarekin eta kontsumo jasangarriarekin lotutakoak.
- Adin guztietarako.
- 3 eta 20 jokalarari artean.
- Orri bat, kartoia, markatzaileak, post-it orriak eta sariak beharko dira.
- Green Coach bat dago (maisua, begiralea...), Green Captain bat (talde bakoitzaren bozeramailea) eta Green Writer bat (erantzunak idazteaz arduratzen dena).



Jokatzeko modua

- 4 eta 5 parte-hartzaile arteko taldeak eratzen dira.
 - Taldeek taldea definituko duen ingurumen-izen bat adostuko dute, eta Green Captain-a eta Green Writer-a aukeratuko dituzte (joko osoan txandakatu daiteke).
- c. 3. jarduera. Ingurumen-ginkana bat egingo da aurreko jardueretan eztabaidatutako gaiei amaiera emateko.

4. TANTA

- a. Kahoot. Jarduera honen bidez, ikasleen partaidetzazko ebaluazioa egiten da birziklatzearen, berrerabiltzearen eta hondakinen murrizketaren kontzeptuetan, baita ekonomia jasangarriaren, ekonomia zirkularren eta klima-aldaketaren nozioetan ere, besteak beste.
- b. Ozeano Bareko uhartea. Kontsumo-ohitura jasanezinen (plastikozko uhartea) ondorioez kontzientziaztea da asmoa.
- c. Joan-etorria. Helburua da rol-joko baten bidez modu bisualean ikas dezatela CO₂ naturalaren eta gure eguneroko ekintzekin zeharka igortzen dugun CO₂-aren arteko aldea.

Kokapena

EGIBIDE ikastetxean egin da, zehazki Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko Goi Mailako Prestakuntza Zikloan (ILE), Vitoria-Gasteizko udalerrian.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ikasle guztientzako materialak garatuko dira: DBHko lehen mailatik hasi eta Batxilergoko bigarren mailaraino.

Originaltasuna eta berrikuntza

Sentsibilizazio-kanpaina honen berrikuntza honetan datza: materialak EGIBIDEko ILEko prestakuntza-zikloko ikasleek sortu eta zuzentzen dituzte.

Jarraipen-adierazleak

- EGiko ILEko 16 ikasleek parte hartuko dute tailerretan.
- DBHko eta Batxilergoko 400 ikasleek baino gehiagok jasoko dituzte lantegiak.

Ebaluazio-metodologia

Lantegiak prestatzen parte hartu duten pertsonen jarraipena egingo da, baita sentsibilizazio-kanpaina horietara joan direnen kopuruarena ere.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hori LHko edozein CFtan errepika daiteke, dagokion xede-publikoari egokitzuz.



Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea.
Egitaritze-urtea	2019
Erakundearen izena	Lauro Ikastola
Web-orria	www.lauroikastola.eus
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

“Green Classroom” Saria

Proiektu hau Lehen Hezkuntzako ikasleekin garatu da.

Historikoki, jolasgaraian, ikasleek galletak, gozokiak, pastelak... eta ekarri dituzte hamaiketako gisa eskolara. Horrek bi arazo sortzen ditu:

- Elikagai horiek, oro har, plastikozko bilgarriekin etortzen dira.
- Dieta osasungarri batean sartzen ez diren elikagaiak dira.

Beraz, erabaki zen ikasleei hamaiketakoarekin etxetik ontzi berrerabilgarriak ekartzeko eskatzea. Horrela, hondakin askoren sorrera murrizten ari da, hala nola plastikozko ontziena edo elikagaiak biltzeko erabiltzen den aluminioarena.

Gainera, ekartzen zituzten elikagaiak osasungarriak izan zitezten saiatu ziren. Hala, honako hau sustatu nahi zen:

- Frutak, zereal osasungarriak... kontsumitzea.
- Elikagai ultraprozesatuak edo azukre askokoak saihestea.

Jolastokian, ikasgela bakoitzak poltsa bat du. Hala, ikasleak bazkaria jaten amaitzen duenean, ontzi berrerabilgarriak bere gelako poltsan uzten du, eta bere ikaskideekin jolastu daiteke.

Hilaren amaieran, arduradunak jakinarazi beharko die ikasleei zein klasetan kontsumitu den fruta gehien hilaren amaieran, eta, ondorioz, zeinetan alferrik galdu den gutxien (frutak ez baitaude ontziratuta), eta klase horri ematen zaio “hileko klase berdea”ren saria.

Sariaz gain (diploma), joko kolektibo bat (hala nola ping-pongeko palak, bolak, mahai-jokoak...) emango zaie.

Kokapena

Ekintza hau Loiuko Lauro Ikastola ikastetxean gauzatu dau.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Bai ikasleak, bai haien familiak ekintza honen jakitun dira zirkularren bidez, eta hasieran ikasturteko bileren berri ematen zaie. Gainera, ekintza honi buruzko informazioa eskolaren webgunean eta “Eskolako Agenda 21” webgunean argitaratu da.



Era berean, ekintza honekin lotutako zenbait argitalpen egin dira.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza honen originaltasuna bi arazo konbinatzean datza: dieta osasungarria mantentzea eta erabiltzen ditugun plastikozko ontzien kopurua murriztea. Ikasleei mezu hau bidali nahi diegu: zenbat eta fruta gehiago sartu dietan, orduan eta plastiko gutxiago sortuko da.

Jarraipen-adierazleak

Proiektu honetan Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek parte hartu zuten. Hala, 785 ikaslerengana iritsi da.



Zeharka, jarduera hau ikasleen familia guztiengana ere hedatu da (550 familia inguru), baita irakasleengana ere (100 irakasle inguru eta eskola-materiala).

Ekimen honetan 400 ontzi berrerabilgarri inguru ekarri direla kalkulatu da, eta ikasleen % 65ek ontzi berrerabilgarria eramaten jarraitzen dute.

Ebaluazio-metodologia

Ikasle parte-hartzaileen eta erabilitako ontzi berrerabilgarrien kopuruaren jarraipena egitea planifikatu zen.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan gauzatu daiteke.





Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea.
Egitaritze-urtea	2018
Erakundearen izena	EGIBIDE
Web-orria	www.egibide.org
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Klima-aldaketari, urari eta laboreei buruzko lantegia



Gasteizko Udalaren Gazte Planarekin eta Euskal Herriko Hazien Sarearekin lankidetzan, elikagai-hondakinei buruzko lantegi bat egin zen, klima-aldaketa, ura eta laboreak ardatz hartuta. Ikasleen arteko elkarrekin eta haien ikuspegi kritikoa sustatzen duten partaidetzazko dinamiketan oinarritzen zen, eta elikadura-zerbitzuen egungo eredu zalantzan jartzen zen.

Lantegi honen helburua zen babesa ematea Vitoria-Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak klima-aldaketaren inguruan abian jarrita kontzientziazio-kanpainari.

Abiapuntu izan daitezkeen galdera batzuk:

- Zer dakizu klima-aldaketari buruz?
- Pentsatu zure janari gogokoenean. Inoiz galdetu al diozu zeure buruari hori jaten jarrai dezakezun?
- Zure ustez, nola eragin dezake klima-aldaketak zure janari gogokoenean? Eta ur-faltak?
- Zer egin daiteke kaltea saihesteko? Zer egin dezakezu zure egunerokoan?

Sarrera gisa, klima-aldaketak mundu-mailan eta toki-mailan dituen inpaktuak analizatu dira, baita garapen jasangarriaren eta elikadura-subiranotasunaren arteko loturak ere, hainbat irudiren bitartez.

Gero, bideo baten bidez, ikasleek bertako barietateak eta nekazaritzako biodibertsitatea zein diren ikasi dute, Euskal Herriko Hazien Sareko ordezkari batzuekin.

Zenbait adibideren bidez, egungo krisiak analizatu dira (biodibertsitatea, elikadura-subiranotasuna eta klima-aldaketa), guztiak lotuta baitaude.

Azkenik, bingo baten bidez, klima-aldaketaren ondorioekin lotutako oinarrizko kontzeptuak eta horren aurkako borrokan nekazaritzako biodibertsitateak duen zeregina landu dira. Aurreko jarduera indartzeko, alternatiba eta ekintza orokor eta pertsonalei buruzko gogoeta egin da, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko helburuarekin, elikagaien produkzio- eta kontsumo-katea ardatz hartuta.

Gainera, "GAZTE LAB" bat egin da "Ingurumen Hezkuntza eta Kontroleko" Goi Mailako Heziketa Zikloko ikasleekin, Gasteizko Gazteria Zerbitzuko Gazteria Planeko teknikariek dinamizatuta, tailerlean zehar eskuratutako ezagutza areagotzeko.

Kokapena

EGIBIDEn Gasteizko campusetan egin da.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ekintza Jesús Obrero campuseko ikasleekin egin da, aurrez aurreko tailer baten bidez.

Hainbat tresna bisual erabili ditu (irudiak eta bideoak, adibidez), baita ikasleen arreta bereganatzeko hainbat jolas egitea ere.

Nabarmendu behar da ikasle horiek ingurumen-hezitzaileak izango direla etorkizunean, eta, beraz, oso garrantzitsua da jakitea nola komunikatu arazo hori (klima-aldaketarekiko elikagaiak alferrik galtzea), etorkizuneko belaunaldiak sensibilizatzeko.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza honen originaltasuna elikagaien alferrik galtzea klima-aldaketaren ikuspegitik aztertzean datza. Horrela, elikagaien ziklo osoari buruzko gogoeta egiten da, jatorria (laboreak) eta kontsumoa kontuan hartuta.

Jarraipen-adierazleak

26 ikaslek parte hartu zuten tailerlean.

Ebaluazio-metodologia

Tailerretan parte hartzen duten pertsonen erregistro bat eramango da.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hori ikastetxean zein Administrazioan egin daiteke, ingurumen-hezitzaileen bidez herritarrak, oro har, klima-aldaketaren ikuspegitik elikagaiak alferrik galtzen ari direla jabetu baitaitezke.



Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egitaritze-urtea	2013
Erakundearen izena	IES Mungia BHI
Web-orria	https://mungia.hezkuntza.net
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Pilen bilketa arduratsua

Ekintza hori ikasleei informazioa emateko prozesu baten bidez ezarri zen, eta ikastetxeko "Eskolako Agenda 21" en kudeaketak sustatu zuen. Zuzendaritza ekoordezkariekin bildu zen ikasleek hainbat lan egin zitzaten behar zuten informazio guztia emateko.

Ekoordezkariak Hondakin Prebentziorako Europako Astearen parte hartzeko asmoa azaldu zieten ikasleei, baita hautatutako ekintzaren irismena ere: baterien bilketa arduratsua. Helburu nagusia zen ikasleen artean etxean sortutako bateriak behar bezala jasotzearen eta baztertzearen garrantziari buruzko kontzientziazioa areagotzea. Mezu hori familiei jakinarazi behar izan zitzairen, jardueraren eta ekintzaren irismena hobetzeko. Familiei ekimenaren berri eman zitzairen, eskolaren eta familien arteko komunikaziorako garatutako EINIKA plataformen aplikazioa erabilita. Aplikazio hori erabiltzeak paper-hondakinak sortzea eragotzi zuen, eta mezua jasotzea eta audientzia zuzendua bermatu zuen.

Gainera, Hondakin Prebentziorako Europako Astearen, institutuko mantentze-lanen arduradunak pila erabiliak bildu zituen eta ikasturte bakoitzean bildutako hondakin kantitatea erregistratu zuen.

Bilketa amaitu ondoren, eskola Mungiako Udalarekin harremanetan jarri zen bildutako hondakin erretiratzeko lana antolatzeko.

Kokapena

Ekintza hau Mungiako IES Mungia BHI ikastetxean gauzatu zen.

Originaltasuna eta berrikuntza

Programak jardunbide egokiak sustatu zituen hondakin arriskutsuen (hala nola baterien) bilketan, behar bezala kudeatzen zirela bermatzeko. Ikasleak konturatu ziren jokabide indibidualak garrantzi handia duela parte-hartze kolektiboa dagoenean.



Era berean, bateriak gutxiago erabiltzea sustatzen du ekintza honek, eta iraupen luzeko (hainbat zikloko) produktu kargarrien erabilera sustatzen du.

Jarraipen-adierazleak

Guztira 750 ikaslek parte hartu zuten zuzenean, eta 800 senidek zeharka.

Ebaluazio-metodologia

Zuzenean edo zeharka parte hartzen duten pertsonen erregistroa eraman behar da, sentsibilizazio-kanpaina horren irismena ezagutzeko.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan egin daiteke.





Erakunde mota	Ikastetxea
Gaia	Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. 2022ko urteko gaia: Ehun jasagarriak eta zirkularrak.
Egikaritze-urtea	2022
Erakundearen izena	St. George's British International School
Web-orria	https://st-georges.britishinternationalschool.com
Kategoria/Saria	Ikastetxe kategoriako Europako Sariaren irabazlea

Ekintzaren deskribapena

Material birziklatuz egindako panel akustikoak



Ekintza toalla zaharrak eta ehunezko materialak biltzean oinarritzen da, isolamendu akustiko gisa erabiltzeko, jangela panel akustikoz betetzeko eta estaltzea helburu hartuta.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OMEk) honela definitzen du kutsadura akustikoa: ingurumenen zarata edo bibrazioak egotea, zarata edo bibrazio horiek eragin negatiboa dutenean bai gizakien osasunean, bai naturaren eta ingurumenaren kontserbazioan. Gainera, Europan bost pertsonatik bat egunero dago osasunerako zarata-maila kaltegarrien eraginpean, eta informazio hori Ingurumenaren Europako Agentziaren (EEEren) txosten batean jasota dago. Datu horien arabera, garrantzitsua da horrelako iturri kutsatzaileekiko esposizioa mugatzea, planetaren eta bertako biztanleen osasuna babesteko.

Mota horretako kutsaduraren aurka borrokatzeko, analisi bat egin zen eskolako eremu problematikoena zein zen zehazteko, eta jantokia zarata gehien sortzeko joera handiena zuena zela ondorioztatu zen.

Jardun beharreko eremua identifikatu ondoren, intsonorizaziorako material berrerabilgarriak ikertu ziren. Ehunek (toallak barne) zarata minimizatzeko gaitasun handia dutela deskubritu zen.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen esparruan, mota horretako materialak biltzea proposatu zen (familiak zabor bihurtzeko zorian zeudenak), eta gero jantokia intsonorizatzeko erabiltzea (horrela, material horiei bigarren bizitza bat emanda).

Kokapena
Ekintza hau St. George's British International School-en instalazioetan gauzatu zen: Artazagane 51, Leioa.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Mezu elektronikoa bat bidali zitzaien eskolako familiei, beharrezko materialen bilketan parte har zezaten eskatzeko. Ekintza hau eskolako komunikabideen plataformetan eta hileroko buletinean sartu zen, baita hezkuntza-talde osoarekin partekatu ere.

Originaltasuna eta berrikuntza

Birziklatutako materialetik abiatuta panel akustikoak eraikitzekeo ideia originala da, eta jatorrizko helbururako erabiltzeko baldintza egokietan ez dauden objektuak berrerabiltzeko modu bikaina.

Gainera, prozesuan zehar ikasleek parte hartzeko hainbat formulazio izango dituzte; adibidez, ikasleak izango dira berrerabiliko diren materialak biltzearen arduradunak, intsonorizazio-panelak egitearen arduradunak, eta isolamendu akustikoa hobetzearen onuradun nagusiak izango dira.

Horrela, proiektu honen bidez, garapen jasangarriko helburu hauek betetzen dira:

- 4. GJHa. Kalitatezko hezkuntza.
- 9. GJHa. Industria, berrikuntza eta azpiegitura.
- 11. GJHa. Hiri eta komunitate jasangarriak.
- 12. GJHa. Produkzio eta kontsumo ardura.

Jarraipen-adierazleak

Ekintza honek eragin iraunkorra du, panelak etengabe erabiliko baitira jantokian ikasleen zarata-mailak murrizteko.

Panelak arrakastatsuak suertatzen badira, zeregin hori bera eskolako beste eremu batzuetan egingo da.

Ebaluazio-metodologia

Emandako toalla zaharren eta ehunezko piezen guztizko kopurua kuantifikatu zen, baita parte hartu zuten familien kopurua ere.

Panelak ezarri ondoren, jantokiko zarata-mailak neurtuko dira eta egungo mailekin alderatuko dira.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein ikastetxetan gauzatu daiteke.



Enpresa / Industria



Erakunde mota

Enpresa / Industria

Gaia

Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea.
Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea.
Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.

Egikaritze-urtea

2013

Erakundearen izena

SEUR

Web-orria

www.seur.com

Kategoria/Saria

Europako irabazlea

Ekintzaren deskribapena

Hondakin prebentziorako kanpo-komunikazioko kanpaina

Gure helburua da gure langile, bezero eta hornitzaileen artean eta, oro har, gizartean garapen jasagarriarekin dugun konpromisoa indartzea, kontsumo-mailak murriztuta eta gizarte-erronkekin arabera hondakinak sortuta.

Kanpaina sare sozialen bidez egin zen, hondakinak murrizteko eta birziklatzeko aholkuak emanda. “Emaiozu bigarren bizitza bat” implementatutako kanpainak ingurumen- eta gizarte-arloko bi ekimen izan zituen ardatz:

1.- Bizitarako bizikletak

“Bizitarako bizikletak” kanpaina Pintoko Desgaituen Elkartearen, Alberto Contador Fundazioaren, Ananta Fundazioaren eta SEUR Fundazioaren baterako ekimena da. Horren bidez, bizikletak konpontzeko zerbitzu bat sustatzen da pertsona ezinduak enplegatzen dituen lantegi batean, eta konpondutako bizikletak doan banatzen zaizkie behartsuen taldeei. Alberto Contador Fundazioak doan jasotzen ditu bizikletak, eta SEUR Fundazioak kosturik gabe transferitzen ditu.

Hona “Bizitarako bizikletak” ekimenen helburu nagusiak:

- Bizikletak hartzeko eta konpontzeko denda bat eraikitzea.
- Zentro okupazionalen planean adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako gaikuntza eskaintzea.
- Espainian zein atzerrian gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen artean konpondutako bizikletak eman daitezen sustatzea, garapenerako behar bezala justifikatutako lankidetzaprogramen bidez.



- Bizikletak garraio garbi eta berde gisa, baita aisialdirako aukera gisa ere, duen garrantziaren kultura gizartean zabaltzen laguntzea.
- Instituzioen arteko lankidetzaren kultura gizartean zabaltzen laguntzea.

2.- Bizitza berri baterako plastikozko tapoiak

SEUR Fundazioaren “Bizitza berri baterako plastikozko tapoiak” en batzordeak ekintzaren onuraduna aukeratzen du. SEUR sarea arduratzen da taldeek eta norbanakoek emandako tapoi guztiak jasotzeaz eta garraiatzeaz, eta SEUR sareak Espainian eta Portugalen dituen instalazio eta salmenta-puntu guztiak zure eskura jartzen ditu tapoiak jasotzeko. Bestalde, birziklatze-instalazioan egunero kontrolatzen dira jasotako tapoi kopuruak, tapoiaren kudeaketa-kateari buruzko hileko txostenak prestatzen dira eta ekintzaren onuradunari zuzenean laguntzen zaio helburua lortu ondoren jasotako tapoia birziklatuena bakoitzeko.

“Bizitza berri baterako plastikozko tapoiak” ekimenen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Baliabide ekonomikorik ez duten haurrei tratamendu medikoak edo gure osasun-sistemak erregulatzen ez dituen baliabide materialak eskuratzen laguntzea, haien bizi-kalitatea hobetzeko, plastikozko tapoiak birziklatuta.
- Laguntzea flaskoen plastikozko tapoiak birziklatzearen garrantziaren inguruko sentsibilizazio berezia lortzen, tapoiei bigarren bizitza bat emateko iturri gisa, lehengaien kontsumoa, sortutako hondakinak eta, beraz, CO₂ emisioak murriztuta.
- Gizartean lankidetzaren eta jardunbide egokien kultura zabaltzen laguntzea.
- SEUReko langileen artean logistika humanitarioa eta boluntarioria korporatiboa areagotzea, parte hartzeko espirituari eutsiz eta langileen harrotasuna eta enpresaren helburuetan duten parte-hartzea hobetuz.



Kokapena

Ekintza hori Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait udalerritan gauzatu da: Gasteizen, Donostian, Bilbon eta Eibarren.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ekimenak arrakastaz estali dira sare sozialetan eta komunikabide publikoetan.

Originaltasuna eta berrikuntza

Bi ekimenek erronka kultural bat sustatzen dute, ingurumen-erronken bidez helburu sozial bat lortzeko. Etxeetan sortutako hondakinen bilketa (plastikozko estalkiena eta bizikletena, adibidez), sarritan, etxean egunero egiten diren birziklatze-ohituretatik kanpo geratzen da. SEURek aurkeztutakoen antzeko ekimenak inplementatzeak indartu egiten du etxeko hondakinen erabilera potentzialen eta kontzientzia eta laguntza sozialaren arteko lotura. Bi ekimen horiek areagotu egin dute hondakinen fluxu horiek gizarte-laguntzaren iturri gisa duten balio erantsiaren inguruan herritarrek duten sentsibilizazio-maila.

Jarraipen-adierazleak

- 90 bizikleta jaso dira.
- 1.361.405.000 plastikozko tapoi bildu dira.
- 2.272,81 tona plastiko birziklatu dira.
- Saihestu egin dira 3.409,22 tona CO₂.
- 542.731,91 € bildu dira onuradunentzat.
- 56 haurri lagundu zaie.

Ebaluazio-metodologia

Garrantzitsua da bildutako materialen erregistroa eramatea, baita ingurumen-jardunbide egoki horien bidez lortutako ingurumen- eta gizarte-onurena ere.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau mezularitzako hainbat enpresatan ezar daiteke, birziklatzean eta/edo berrerabiltzean eta berre-rabiltzeko prestakuntzan espezializatutako enpresa pribatuen babesarekin.





Erakunde mota	Enpresa / Industria
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. 2018ko urteko gaia: Kutsatzaile emergente.
Egikaritze-urtea	2018
Erakundearen izena	IMQ Zorrotzaurre
Web-orria	www.clinicaimqzorrotzaurre.es
Kategoria/Saria	Europako irabazlea

Ekintzaren deskribapena

Hondakin-uretako kutsatzaile emergenteen prebentzioa

“Kutsatzaile emergenteak” terminoak argi eta garbi definitutako arauzko estatusa ez duten substantzietan egiten diren erreferentzia, eta ez dago haien segurtasunari buruzko ebidentzia zientifikorik. Ingurumenean duten presentzia ez da nahitaez berria, baina bai, ordea, izan ditzaketen ondorio eta eraginekiko kezka. Eta haiekiko kezka arrazoiak honela laburbil daitezke:

1. Produktu kimikoetan egindako aurrerapenak aurrerabide handia ekarri dute, batetik, eta arrisku berriak sortu dituzte lan-esparruan, osasun publikoan eta ingurumenean, bestetik.
2. Ezinbestean, zati bat ingurumenera transmititu da, nahiz eta 80ko hamarkadaz geroztik produktu kimikoen kontrolari buruzko araudia aurrera egiten ari den.
3. Substantzia horietako batzuen propietate fisiko-kimikoak arriskua ekar dezakete gizakien osasunerako eta ekosistemarako.

Laburbilduz, kutsatzaile emergenteen isurketak berekin ekar dezake oraindik behar bezala ikertu eta erregulatu gabe dagoen osasun- eta ingurumen-arazo bat, eta, hala ere, substantzia horiek ingurumenean metatzen ari dira. Hala, dagoeneko hondakin-uretan, ibaietan eta azaleko beste korrante batzuetan aurki daitezke. Horietan, uretako izaki bizidunei eragiteaz gain, gizakiak substantzia horien arriskupean gera daitezke ur edangarriaren bitartez, adibidez.

Proiektu pilotu honen helburua izan da jatorrian identifikatzea pazienteei laguntza-zerbitzuak ematearen ondoriozko hainbat prozesutan erabili diren substantzia kimikoak, eta Europar osasun-sektorean erabiltzen diren substantzia kimikoen erabilerari eta produkzioari buruzko araudi erregulatzaile berriaren onarpenari aurrea hartzea.



Proiektua hiru fase hauetan banatu da:

1. "Prozesu-mapa" izeneko lehen fasea: IMQ Zorrotzaurre klinikaren barruan aukeratutako zerbitzuetarako prozesu-mapa bat egitea, erabilitako produktu kimikoak identifikatuta.
2. "Lehentasan-zerrenda" izeneko bigarren fasea: lehenengo fasean identifikatutako konposatu kimikoen lehentasan-zerrenda bat sortzea, kontuan hartuta kanpoko faktoreak (legeria, hornidura-katea eta garrantzi handiko kimikoak) eta barrukoak (funtsezko produktuak, enpresa-politikak eta kudeaketa-sistemak).
3. "Kudeaketa-alternatibak" izeneko hirugarren fasea: alternatibak ezartzea (erabilerakoak, kudeaketakoak edo produktukoak) ahal den guztietan, bigarren fasean lehentasan handiena lortu duten produktu kimikoetarako.

Horrela, ingurumen-adituen talde batek endoskopia, esterilizazio, mantentze eta garbiketako zerbitzuetan erabiltzen diren produktu kimikoek duten eragina analizatu du, horien osagai kimikoak identifikatuta eta hainbat faktoreren arabera lehenetsita. Faktore horiek dira, besteak beste: 1) Erreferentziako legeria egotea (Europakoa nahiz Amerikakoa), produktu horiek debekatu edo mugatuko dituen edota pertsonen osasunerako edo ingurumenerako arriskutsutzat joko dituen. 2) Zerrenda ofizialetan agertzea etorkizunean debekatuak, mugatuak edo arriskutsutzat hartuak izan daitezkeen substantziak. 3) Substantziei lotutako alarma soziala egotea. 4) Inpaktu txikiagoko ordezkotako produktuak egotea. 5) Ingurumen-entresako politikak eta erosketapolitikak betetzea.

Kokapena

IMQ Zorrotzaurre ospitalean gauzatu da, Bilboko udalerrian.



Agerikotasuna eta komunikazioa

Komunikazio-metodo nagusia intraneteko tresna bat izan da klinikako langileentzat. Tresna horren bidez, kutsatzaile emergente bat zer den, non aurki daitezkeen eta giza osasuna babesteko hura ingurumenean ez sartzeak duen garrantzia azaldu da. Egindako analisia eta emaitzak ere zabaldu dira enplegatu guztiak inplikatzeko.

Era berean, liburuxkak egin dira zentroa bisitatzen duten pazienteak ere kontzientziatzeko.

Originaltasuna eta berrikuntza

Osasunaren eta ingurumenaren sektoreak egindako baterako lanaren emaitza handiak ematen du aditzera proiektu honen eredugarritasuna. Gainera, proiektu hau hori edozein osasun-erakundetara estrapola daiteke. Proiektu honetan, IMQ klinikak, Osasunaren Euskal Klusterraren parte den heinean, ACLIMA Ingurumenaren Euskal Klusterrarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin (Administrazio Publikoa) batera lan egin du.

Jarraipen-adierazleak

Guztira 34 produktu kimiko (esterilizazio-lerrorako 5, endoskopia-lerrorako 6, mantentze-lerrorako 8 eta garbiketa-lerrorako 15) eta horien osagaiak analizatu ziren.

Egindako analisiak aukera eman du substantzia batzuk identifikatuta edukitzeko (guztira 6 produktu kimiko: 1 endoskopia-lerrorako, 3 garbiketa-lerrorako eta 2 esterilizazio-lerrorako). Substantzia horiek, etorkizunean, gure osasunean eta gure ingurunearen osasunean benetan inpakturik duten baieztatzen denean, eta, gainera, merkatuan eraginkortasun-maila bera duten benetako alternatibak daudenean, ordezkatu ahal izango dira, oreka mantenduz ingurumenaren gaineko inpaktuaren, langileen osasunaren eta pazienteentzako osasun-laguntzaren ematean.

Ebaluazio-metodologia

Garrantzitsua da analizatutako konposatuen eta analisi horren emaitzen erregistroa eramatea.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-zentro publiko zein pribatuetan gauzatu daiteke.





Erakunde mota	Enpresa / Industria
Gaia	Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egikaritze-urtea	2016
Erakundearen izena	Uvesco
Web-orria	www.uvesco.es
Kategoria/Saria	Europako finalista

Ekintzaren deskribapena



Elikagaien eta bestelako hondakin kudeaketa integratua

Enpresak ikusi zuen Irungo biltegian fruta eta barazki kantitate izugarria zegoela hondarren edukiontzietara isurtzen zena. Horregatik, honako neurri hauek hartu ziren:

- Pertsona bat kontratatzea hondakin organikoak gainerakoetatik bereizteko. Kontratazio berri hori aprobetxatuz, ingurumen-erantzukizuna eta gizarte-erantzukizunarekin bateratu nahi izan zen, eta desgaitasuna zuen pertsona bat kontratatzea erabaki zen.
- Konposta egiten zuen enpresa pribatu batekin jarri zen harremanetan.
- Gaur egun, jenero mota hori ia ezin hobeto bereiz daiteke, eta urtearen buruan 20 tona inguru konpostatu dira Irungo zentrolean.

Kokapena

Ekintza hori Irunen dauden Uvescoren biltegieta gauzatu zen.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Barne-komunikazioko kanpaina bat egin zen enplegatuak kontzientziatzeko, ez bakarrik biltegian bereizte-lana behar bezala egiten zela bermatzeko, baizik eta mezua etxeetara helarazteko ere.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza honi esker, batu egin dira, alde batetik, materia organikoa gaika biltzeko ingurumen-erronka, gero hura konpostatzeko, eta, bestetik, desgaitasuna duten pertsonak lan-merkatuan sartzeko erronka soziala.

Jarraipen-adierazleak

Urtebetean 20 tona hondakin organiko konpostatzea lortu da.

Ebaluazio-metodologia

Konpostera bideratutako hondakin organikoen kantidadearen jarraipena egitea.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaiak banatzen/merkaturatzen diren edozein supermerkatu, azoka edo zentrotan gauzatu daiteke.





Erakunde mota	Enpresa / Industria
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea.
Egikaritze-urtea	2021
Erakundearen izena	Uvesco
Web-orria	www.uvesco.es
Kategoria/Saria	Europako finalista

Ekintzaren deskribapena

Garbiguneak

Ingurumena babesteko eta zaintzeko konpromisoan, Uvesco taldeak proiektu bat gauzatu du zenbait dendatan garbiguneak sortzea ardatz hartuta, bezeroek beren hondakinak ekar ditzaten eta horiek birziklatzea berma dadin.

Normalean nola birziklatu zalantzak dauden hondakinatarako diseinatuta daude garbigune horiek, etxe guztietan izaten baitira aipaturako hondakinak (kafe-kapsulak, kartutxoak, bateriak eta olioak). Horrela, jendeari gertuko gunek bat ematen zaio hondakin horiek uzteko, eta berariaz garbigune munizipaletara joateko beharra saihesten da.

Proiektu honek birziklatzea sustatzeaz eta errazteaz gain, berrerabilpenaren adibide ere izango da.

Hondakinak biltzeko erabiliko diren edukiontzia soberako kafe-kapsulekin fabrikatuko dira.

Proiektua denda gehiagotara hedatzen den heinean, edukiontzi horiek lehen puntuetan jasotako kafe-kapsulekin eraikiko dira. Beraz, ekonomia zirkularren adibide argi bat da. Gainera, kartutxoak bidaliko dira horiek berrerabiltzen dituen enpresa batera, ondoren saltzeko bete ditzaten.

Hondakin horietako batzuk berreskuratzeak onura ekonomikoa ekarriko du, gizarte-kausetarako erabiliko dena, hala nola Elikagaien Bankuarentzako dohaintzetarako, horrela proiektuaren alderdi soziala indartzeko. Gainera, edukiontzia fabrikatzeko eta hondakinak biltzeko, tokiko enpresak soilik erabiliko direnez, tokiko ekonomia sustatuko da.



Kokapena

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko Uvesco kateko zenbait supermerkatutan gauzatu da.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Proiektuak publikoarengan ahalik eta ikusgarritasun eta hedapen handiena izango duela bermatzeko, Uvescoren komunikazio-kanal guztiak erabiliko dira, hala nola sare sozialak, webgunea eta aldizkaria.

Era berean, mezua indartzeko, kartelak eta informazio-taulak jarriko dira dendetan.

Originaltasuna eta berrikuntza

Proiektu hauen izaera berritzailea honetan datza: elikagaien banaketan lehen aldia izango da edukiontzia bildutako hondakinetako batetik abiatuta fabrikatzen direla. Horrela, adibide garbia emango da hondakinek bigarren bizitza bat izan dezaketela.

Supermerkatuetako bezeroen hondakinen bilketa denda bakoitzaren araberakoa izaten da normalean, estrategia argirik gabe. Proiektu honen bidez, denda bakoitzean zer hondakin bilduko diren zehaztu nahi da. Hala, beren hondakinak taldearen salmenta-puntu guztietan modu jasangarrian kudeatu ahal izango dituztela bermatzen zaie pertsoneri.

Jarraipen-adierazleak

15.000 kafe-kapsula baino gehiago erabili ziren garbigune bakoitza fabrikatzeko.

Hona bilketa-datuak:

- Kafe-kapsulak: 31 kg/hil dendako
- Olioak: 10,5 kg/hil dendako
- Kartutxoak: 12 kg/hil dendako

Ebaluazio-metodologia

Garrantzitsua da garbiguneetan bildutako hondakinen jarraipena egitea, hilerro batezbestekoak egiteko eta bilketa-joera handitzen den ikusteko.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein supermerkatutan gauzatu daiteke.





Erakunde mota	Enpresa / Industria
Gaia	Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egikaritze-urtea	2020
Erakundearen izena	Ekomodo
Web-orria	www.ekomodo.eus
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

EKOIZIR



EKOIZIR proiektua ekonomia zirkular eta sozialeko proiektu bat da, EKOMODOk zuzendua, Irizar S. Coop. sozietatearen (bere IZIR marka) eta Eko-REC enpresaren lankidetzarekin, plastikozko 28.000 botila eta tapoiren zirkulua ixteko. Horiek kide kooperatiboentzako hainbat lan-osagarri bihurtzen dira. Proiektuaren bidez, baztertuta geratzeko arriskuan zeuden 13 pertsonentzako tokiko enplegua sortu zen lantegi sozialetan.

Proiektu honetan, 1.500 kilo PET hondakin identifikatu, neurtu eta bildu ziren IRIZAREN produkzio-lerroetan, eta bigarren bizitza bat eman zitzaientzen, EKOMODO markako 3.200 lan-osagarri jasangarri produzituta. Inpaktu sozial positiboa izan zuen.

Ekonomia zirkularreko proiektu honetan inplikaturako eragileak EKOMODO, Irizar S. Coop., Eko-REC, Sarea Fundazioa eta Liburki izan ziren.

EKOMODOren zeregina produktuen diseinua, antolaketa eta produkzio-prozesuen koordinazioa izan zen.

Irizarrek proiektuan izan duen zeregina bere produkzio-lerroetako PET hondakin plastikoak identifikatu, neurtu eta biltzea izan da, ondoren haiek birziklatu ahal izateko.

Eko-REC enpresak plastikozko 13.500 botila eta 15.000 tapoi birziklatu zituen proiektuan, hainbat produktu prestatzeko lehengaiak lortzeko.

Sarea, Gipuzkoako Elizbarrutiko Caritasek eta Liburkik sustatutako erakundea, produktuak produzitu eta prestatzeaz arduratzen zen, gizarte-bazterketako arriskuan zeuden pertsonen eskulanarekin:

- Sarea: 1.000 tableta-zorro, 1.000 karkasa, 100 alfonbra ordenagailu-saguentzat eta 100 tote-poltsa produzitzea. Baztertuta geratzeko arriskuan zeuden 7 pertsonak parte hartu zuten.



- Liburki: 1.000 koaderno pertsonalizatu prestatzea. Baztertuta geratzeko arriskuan zeuden 6 pertsonak parte hartu zuten.

Kokapena

Ekintza hau Donostian gauzatu zen.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Proiektu honek agerikotasun handia izan zuen zenbait hedabidetan, hala nola: EITB, El Correo, El Diario Vasco edo La Vanguardia.

Originaltasuna eta berrikuntza

Proiektu honek gizartearekin eta ingurumenarekin konprometituta dauden enpresen arteko lankidetzaren adibide gisa balio du, ekonomia zirkularrago eta sozialago baterako trantsizioan lan egiteko.

1. Ekodiseinua: gure produktuak diseinatzean material birziklatu berritzaileak erabiltzen ditugu, % 100 hondakin plastikoak eta % 100 birziklagarriak dituztenak.
2. Bizi-zikloa: produktuaren bizi-ziklo osoa kontrolatzen dugu, tokiko produktotik hasi eta azken birziklatzeraino. Hain zuzen, bezeroarekin harremanetan lan egiten dugu, EKOMODO produktua, bere bizitza erabilgarria amaitu ondoren, berriro birziklatu ahal izateko. Izan ere, produktu % 100 birziklagarria denez, gure industria-instalazioetan birziklatzen dugu eta bizitza berri bat ematen diogu.
3. Balio-katearen trazabilitate osoa: abiapuntu dugu, edukiontzi horiko plastikoa birziklatzeaz gain, instalazio berberetan hura ehun-zuntz bihurtzen duen Europako instalazio bakarra izatea. Horrek prozesua sinplifikatzen du, produktuaren trazabilitate osoa izateko aukera ematen digu (baita bizitza baliagarriaren amaieran ere) eta onura handiak ditu ekonomian, gizartean eta ingurumenean.
4. I+G: material berriak bilatzen ditugu etengabe, diseinu ekologikoko produktu berriak sortzeko. Birziklatzen diren hondakin plastikoentzako aplikazio berriak ikertzen ari gara, baina baita gaur egun birziklatu ezin diren hondakin plastikoentzako aplikazioak nola aurkitu ere (adibidez, plastikozko botiletako etiketak).
5. Inpaktu soziala tokiko produkzioarekin: EKOMODOn gizarteratzeko lantegiekin lan egiten dugu gure produkzio-katearen barruan. Gaur esan dezakegu EKOMODO proiektuarekin zuzenean lan egin duten baztertuta geratzeko arriskupeko 13 pertsona daudela.

Jarraipen-adierazleak

- 13.500 botila birziklatuta.
- 15.000 plastikozko tapoi birziklatuta.
- Irizarren 1.500 kilo hondakin plastiko birziklatuta.
- 13 enplegu sortuta gizarteratzeko lantegietan.
- Inpaktu sozial positiboa duten 3.200 laneko osagarri jasagarri garatuta.



Ebaluazio-metodologia

Birziklatzeko bildutako materialen erregistroa eraman behar da, baita hondakinetatik eratorritako lehengai horri esker diseinatutako produktuena ere.

Erreplikagarritasuna

Birziklatutako zuntzak erabilita moda jasangarrian aritzen diren enpresetan erreplika daiteke ekintza hau.





Erakunde mota	Enpresa / Industria
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea. Birziklatzea – Hondakinak bereiztea eta birziklatzea.
Egikaritze-urtea	2019
Erakundearen izena	Nalu Poké
Web-orria	www.nalupoke.com
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

No plastic is fantastic

Nalu Poké jatetxe ekologikoa eta surf-taberna da, eta urteko 365 egunetan ingurumenarekin konprometituta dago.

Denok badakigu plastikoen gehiegizko erabilerak zer ondorio dituen planetaren biodibertsitatean. Julio Bareak Greenpeaceen idatzitako artikuluan zehaztu zuenez, Marianetako itsas hobian (Ozeano Barean) 10 km-tik gorako sakoneran murgildu zen lehen gizakiak ikusi zuen leku horretan plastikoa dagoela. Horrek egoeraren larritasunaz ohartarazi beharko gintuzke.

Aro berri honetan, arazo horren konponbideak ez dira soilik erabiltzen ditugun plastikoak birziklatzea. Kontsumitzeko modua eta gure ondunak eskuratzeko modua aldatu behar ditugu. Nalu Pokén uste dugu garaia dela gu guztiok (governuek, enpresek, administrazioek eta herritarrek) erabilera bakarrek plastikoa agur esateko eta teknologia berri jasangarrietara igarotzeko.

Nalu Pokén oso argi geneukan ekologiak funtsezko zeregina izango zuela gure negozioan. Hortaz, erabaki genuen plastikorik ez erabiltzea gure jatetxean eta surf-tabernan (ez enbalajeon, ez mahai-tresnetan).

Hornitzaileen bilaketa luze baten ondoren, plastikoaren alternatibak lortu ditugu. Hona:

- Poltsak: zelulosa.
- Mahai-tresnak, zuku botilak, bowl-en estalkia: arto-almidoia.
- Bowlak: zelulosa.
- Beste ontzi batzuk:
 - Latak, freskagarrietarako eta urerako.
 - Beira, garagardorako.

Illo horretatik, edukiontzi eta mahai-tresna % 100 konpostagarriak erabiltzen ditugu.





Gainera, gure lokalean sortutako hondakinak hiru zati hauetan bereizteko diseinatutako altzari bat dugu: organikoa/konpostagarria, ontzi arinak (latak) eta beira.

Gure instalazioetan sartzen den bezero bakoitza plastikoen erabilera sentsibilizazio-aukera bat da guretzat, baita gainerako hondakinak egoki bereizteko ere.

Kokapena

Ekintza hau Bilboko udalerriko Nalu Poké jatetxean gauzatu da.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Komunikazio-metodo nagusia gure webgunea, gure bloga eta bezeroekiko zuzeneko harremana izan dira.

Originaltasuna eta berrikuntza

Ekintza honen originaltasuna Bilboko lehen jatetxe/surf-taberna izatea da, % 100 plastikorik gabea, eta bezeroei haiek ere hori nola lor dezaketen erakustea.

Jarraipen-adierazleak

Zuzenean eta neurtzeko moduan, 20.000 bezero inguru jakinaren gainean egon dira plastikoaren arazoaz, gure zerbitzuak erabilita.

Horrela, 1.000 kg plastiko saihestea lortu dugu.

Ebaluazio-metodologia

Establezimendua erabiltzen duten bezeroen jarraipena egitea, kontzientziatutako pertsonen kopurua ezagutzeko.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein jatetxe, taberna edo janariak eta/edo edariak banatzeko negoziotan ezar daiteke.





Erakunde mota	Enpresa / Industria
Gaia	Murrizketa – Prebentzio zorrotza eta jatorrian murriztea. Berrerabiltzea – Berrerabiltzeko prestatzea eta berrerabiltzea.
Egikaritze-urtea	2014
Erakundearen izena	Txiri Vita
Web-orria	www.txirivita.com
Kategoria/Saria	Euskadiko finalista

Ekintzaren deskribapena

Soltean

“Txiri Vita” elikagai eta produktu organikoen dendan, gure filosofia da ohikoak baino produktu osasungarriagoak eskaintzea, ongari artifizialik edo pestizidarik gabe produzituak, eta, ondorioz, portaera ekologikoari eustea. Beraz, ingurumen-gaiak sustatzea eta gure bezeroak horretan heztea gure eguneroko jardueraren giltzarria da.

Horretarako, “Soltean” ekintza garatzen dugu, helburu hartuta gure bezeroak heztea iturburuan hondakinak minimizatzearen garrantzian eta birziklatzeko aurretiazko urrats gisa berrerabiltzearen komenigarritasunean.



Dendaren hainbat ekimenetan oinarritu zen ekintza:

- Birziklatu aurretik oinarrizko urrats gisa murrizteak eta berrerabiltzeak duen garrantziaren hedatzea sare sozialen bidez, arreta berezia jarrita solteko produktuak erostearen abantailetan.
- Normalean eskuragarri izaten ditugunena baino solteko produktuen aukera zabalagoa eskaintzea, eta ahalegin gehigarria egitea gure bezeroei eta, oro har, jendeari erakusteko solteko produktuen kontsumoa beste alternatiba bat dela ontziratutako produktuen kontsumoaren aurrean.
- Bezeroen ontziak berak berrerabil daitezten sustatzea, soltean eros dezaten. Beren edukiontziak eraman ditzakete (beirazko ontziak, plastikozko ontziak...) nahi duten produktu kantitatearekin betetzeko. Horrela, prozesuan hondakinak sortzea saihesten da. Seinaleek, saltzaileek eta Facebookeko gure profilak errazten dute prozesu hori guztia.
- ‘Berrerabiltze-puntu’ bat sortzea. Dendan espazio bat egokitu zen bezeroek behar ez zituzten ontzi berrerabilgarriak uzteko, behar zituzten beste bezero batzuentzat eskuragarri egon zitezten. Ontzien higiena egokia bermatuko da betiere.

Kokapena

Ekintza Santurtziko udalerriko Txiri Vita dendan gauzatu da.

Agerikotasuna eta komunikazioa

Ekintza hori guztia dendan, sare sozialetan eta web-orrian sustatu zen, eta langileek azaldu zuten dendan.

Originaltasuna eta berrikuntza

Hala, denda eskala txikiko prestakuntza-zentro bihurtu zen. Bertan, erabiltzaileek birziklatzeari eta berre-rabiltzeari buruzko ezagutza eskuratzen dute. Txiri Vitak bezeroen ohiturak aldatzea lortzen duten ekintzak sustatu ohi ditu.

Jarraipen-adierazleak

“Soltean” ekintza sustatzen zen orrirako 767 bisita erregistratu ziren Facebooken.

Ebaluazio-metodologia

Bezeroekiko interakzioen kontaketa eraman daiteke dendako langileen beraien bitartez, baita sare sozia-letan eta web-orrian ere.

Ontzi berrerabilgarrien erabilerari buruzko estimazioa ere egin daiteke.

Erreplikagarritasuna

Ekintza hau elikagaiak saltzen eta banatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko dendetan gauzatu daiteke.



7.- Ondorioak

Europatik sustatutako prebentzioaren, berrerabiltzearen eta kudeaketaren helburuekin konprometitutako lurraldea da Euskal Autonomia Erkidegoa. Konpromiso hori islatuta dago garatutako hondakinen inguruko haren politika eta planetan, baita azken urteetan Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen esparruan erakunde publiko zein pribatuetan jasotako partaidetza-tasa handietan ere.

Azken urteotan, 100 ekintzen muga gainditu dugu, eta Euskadi leku nabarmenean kokatu dugu parte hartzen duten lurraldeen artean

Gainera, bederatzi aldiz lortu dugu finalista izatea, eta lautan sarituak izan gara

Ilido horretatik, EWWRn aurkeztutako ekintza GUZTIAK dira garrantzitsuak, eta ez bakarrik izaera berritzaile, sortzaile, eredugarri eta abarregatik sariak jasotzen dituztenak. Ekimen asko —agian konbentzionalagoak, baina nahitaez ezarri beharrekoak—, Asteak emandako transferigarritasunari esker, EWWR-ren pertzepzio-eta portaera-aldaketak eragiteko palanka bihurtzen dira. Horregatik, horiek guztiak modu unibertsean jartzen dira eskuragarri egoitza nagusitik kudeatutako ondareetan eta horri buruzko Euskadiko orrian.


Dokumentu honen 6. atalean ikusi ahal izan denez, prebentzioa produktu baten bizi-zikloaren etapa guztietan gauzatu daiteke ekintzen bidez:

- Enpresa/industria edo elkarte/GKE gisa: Erosketa pribatu berdearen irizpideak, ekodiseinuko ekintzak eta prebentzioko enpresa-planak barne hartzea, teknika erabilgarri onenak erabiltzea, elikadura-soberakinak kudeatzea eta ematea, etab.
- Herritarren parte gisa: Modu jasangarrian kontsumitzea, produktu iraunkor eta berrerabilgarriak kontsumitzea, ontziratu gabeko produktuak edo ontzi berrerabilgarriak kontsumitzea, ekoetiketak dituzten produktuak kontsumitzea, berrerabiltzeko eta bigarren eskuko zentroetan produktuak erostea, etab.
- Administrazio/agintaritza publikoaren parte gisa: Erosketa publiko berdearen irizpideak erabiltzea, prebentzio-plan estrategikoak prestatzea, sentsibilizazio-kanpainak egitea, etab.

Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen urte hauetan guztietan parte hartu duten eragile guztiei esker, gero eta gertuago gaude lehen planteatutako helburua lortzetik: Hondakinik onena sortzen ez den hura da!

Zuen guztion partaidetza izaten jarraitzea espero dugu, eta Hondakinen Prebentziorako Europako Astearen oraindik parte hartu ez duten eragile guztiei horretara animatu nahi ditugu.

Ekintza guztiek, txikiak iruditu arren, prebentzioaren eta berrerabiltzearen arloan aurrera egiten jarrai dezagun laguntzen digute!





Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
Gobierno Vasco

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

